

INDEPENDENTZIAZ HAUSNARTZEN (III):

Imanol Galfarsoro: Estatu gabeko naziotik, naziorik gabeko estatura > 22

2016ko otsailaren 27a | X. urtea • 457. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ETXEA GALDU DUTEN HAURREN AZALEAN

> 12 Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

Gerretan ospitaleak erasotzen dituzte, MSFren arabera 04

Elkarrizketa: Salah Amaidan, saharar errefuxiatua 08

Etxe kaleratzeetan haurrek ez dute etxea bakarrik galtzen 12



Euskodok elkartea, boluntarioki oroimena elikatzen 17

Elkarrizketa Imanol Galfarsorori: Estatu gabeko naziotik, naziorik gabeko estatura 22

Asanblearismoa eta alternatibak, gaztetxeek eragiten jarraitzeko 26

Infraganti: Kote Loidi eta Lourdes Yarza 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Esperimentazio taktikoa eta pazientzia estrategikoa
- 06 **Koldo Sagasti:** Samira ghettoan
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** «Perpetuum mobile?»
- 11 **Ramon Sola:** 2005eko udako Arnaldo Otegi hura
- 15 **Mirari Martiarena:** Ezezkoak
- 16 **Ainara Azpiazu «Axpi»**
- 20 **Arantxa Urbe:** Eleaniztasuna: zientzia ala politika?
- 21 **Amaia Nausia:** Korruptzioaren aitzindariak
- 30 **Rosa Arruabarrena Santos:** Bideo bidez nahi duzuna ikasi!



{ datorrena } Iñaki Soto

Esperimentazio taktikoa eta pazientzia estrategikoa

Garaipen bat lortzen dugun aldiro, ez da horrenbeste behin betiko aldaketa ziurtatzea, baizik eta borrokarako esparru berriak irekitzea». Angela Davisen hitzak dira, “Democracia de la abolición” liburuan Eduardo Mendietak egiten dion elkarrizketan azaltzen direnak. Davisen bisitak bere pentsamenduarekiko interesa berpiztu zidan eta liburua aproposa da, idazlanaren ardatza kartzela bada ere –ziur asko Davisen bizitza militantearen eta pentsamenduaren ardatza ere bada–, elkarrizketa horretan bere pentsamenduaren ildo nagusiak azaltzen baitira. Elkarrizketaren ikuspegia orokorragoa da. Formatua ere lagungarria da, gai desberdinak hari baten barruan sartzeko aukera ematen duelako.

Orokorrean, elkarrizketa intelektual hauek gogoko ditut. Jakina, filosofia eta kazetaritza jarduera zeharo desberdinak dira. Lehendabizikoak ozeanoaren sakontasunean murgiltzea eskatzen du, bigarrena hondartzan hankak bustitzearen parekoa da. Adi, ez da mailaketa bat. Printzipioz biak dira ekintza gustagarriak, interesgarriak. Pertsonen eta gizartearen abaraste eta askapenerako bitarteko eta funts desberdinak erabiltzen dituzten jarduerak dira, ordea. Davisek berak dioen bezala, «filosofiak abantailazko posizioa ematen dizu, bertatik gure mundu soziala ulertzeko duen gaitasunaz hain harro agertzen den diskurtso zientifikoa egin ezin diren galderak egin daitezke-eta».

Sektorean Swarovskiekin lilura sortzeko gaitasuna duen jende ugari egon arren, filosofian perlak topatzeko gai diren pertsonak ez dira hainbeste. Davis horietako bat dela uste dut. [Aldi berean, kazetaritzan gehiegi dira beren hankak busti ordez txakurra pilota bilatzera bidaltzen dutenak. Gurean, zorionez, kazetari bikainak ditugu eta gure medioak batez bestekoaren gainetik daudela uste dut]. Davisen hitzei sistema bat darie, pentsamenduaren eta ekintzaren arteko elkarrekintzan, borrokaren testuinguruan osatu den sistema. Gertaera sozial oro eta posizio ideologiko guztiak irentsi eta zentzu interesgarrian aztertu eta birformulatzeko gai den sistema. Gainera, bai Guggenheimeko hitzaldian bai elkarrizketa honetan, sistema horretan heldutasuna nabari da.

KEZKAK ETA IRADOKIZUNAK: ANTOLAKUNTZA ETA ESPERIMENTAZIOA

#BasqueSelfieFeverExperience-az harago (barkatu, esan behar nuen), baina batez ere «Angelak nik pentsatzen dudana berdina pentsatzen du» haur-joera ekiditeko (irakurri, irakurri, mesedez), testuetan, ideiez gain, bere kezak eta iradokizunak ere azaltzen dira, inspirazio iturri izan daitezkeenak.

Berdintasunaz, aldaketa politikoaz, kartzela sistemen abolizioaz, feminismoaz, multikulturalismoaz, borroken arteko aliantzez... ikuspuntu oso interesgarriak uzten ditu Davisek, baina nik gaur egungo praktika politiko zehatzei buruz egiten dituen bi aipamen aipatu nahi ditut hemen. Lehendabizikoa kezka bat da, mobilizazioaren eta antolakuntzaren arteko aldeari buruzkoa, hain zuzen ere. Iraganeko garai loriatsuez nostalgia ekiditea eta pazientzia estrategikoa lantzea gomendatzeaz gain, gaur egungo politizazio formak eta aktibismoa aipatuz,

«#BasqueSelfieFeverExperience»-az harago eta «Angelak nik pentsatzen dudana berdina pentsatzen du» haur-joera ekiditeko, Davisen testuetan inspirazio iturri izan daitezkeen ideia ugari daude

mobilizazioak hartu duen zentraltasuna aipatzen du, epe luzeagorako eta aldaketa sakonetarako ezinbestekoa den antolakuntzaren kalterako. Guri, euskal ezkertiarroei eta independentistoi aplikagarriak diren esaldi eta galdera borobilak uzten ditu hemen. Adibidez: «Antolakuntza mobilizaziora subordinatzen denean, zer egiten dugu mobilizazio arrakastatsu baten ostean?». Besteak beste, teknologia berriak horren mesederako erabiltzea iradokitzen du. Horrekin batera, esperimentazioaren defentsa sutua egiten du, akatsetatik ikasiz, bide berriak urratuz eta eskeman apurtuz.

Davis “Free Otegi, Free Them All” nazioarteko kanpainaren harira heldu da Euskal Herrira. Asteartean kanpain hau beste fase batean sartuko da. Presoen auzian Davisek esaten dituenetatik batzuk aplikagarriak izan daitezke. Bitartean, «welcome to the jungle, brother!» •

MEDIKUARI TIRO EGITEA

MSFk gogor salatu du gerretan ospitaleak erasotzea «normala» bihurtzen ari dela

 **JENDARTEA** / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Zibilak betidanik izan dira gerren biktima zuzen: hirien setioak, gosea, bonbardaketak, bortxaketak, lekualdatzeak... Baina gehienetan gizatasun gotorleku txikiak ere geratzen ziren gerretan. Ospitaleak ziren gun horietako batzuk, zaurituek laguntza eta babesa lor baitzitzaketen bertan. Hori ere bukatu da: helburu militar bihurtu dira ospitaleak.

Zure etsaiaren medikua ez da zure etsaia». Horrela aurkezten zuen joan den astean MSF Mugarik Gabeko Medikuak gobernuz kanpoko erakundeak Siriako gerran babestutako zentroek jasan dituzten erasoei buruzko txostena. Iaz 94 aire eta artilleria erasok MSFk laguntzen dituen 63 azpiegitura jo zituzten herrialde

arabiarrean. Horietatik hamabi erabat suntsituta geratu ziren, eta 81 mediku eta osasun langile hil edo zauritu ziren. Aurten, beste zazpi eraso izan dira jada sei osasun zentrotan. «Bost urteko gerraren ondoren, osasun azpiegiturak erabat txikituta daude Sirian», nabarmendu zuen MSFk. Izan ere, «normala ez zena normal bihurtu da. Onartezina onartu egiten da Sirian», deitoratu zuen Joan-

Siria iparraldeko Maarat an-Numan hiriko ospitalea, eraso baten ostean erabat suntsituta. Egun berean bonbek beste bost ospitale eta bi eskola ere suntsitu zituzten Sirian.
Gaith OMRAN | AFP

ne Liu MSFko nazioarteko presidenteak. Sirian gertatzen ari dena, baina, ez da inolaz ere kasu bakartua. Afganistanen, Yemenen edota Sudanen «anbulantziei tiro egitea» esamolde bat baino errealitate gordin bilakatu da. Eta erasotzaileak ez dira alde bakarrekoak; Siriako Armada, AEBetako hegazkinak, Saudi Arabiako artilleria...

«Gerraren indarkeriatik zibilak babesteko beharra ez da betetzen», gaitzetsi du MSFk. Eskolak, ospitaleak, meskitak, merkatuak... nahita erasotzen dituzte aldeek, ahalik eta biktima gehien eragiteko.

Joan den otsailaren 15ean jaurtitako misilek bost osasun zentro jo zituzten Sirian. Aldi berean, Idlib eta Alepon bi eskola ere kolpatu zituzten. Guztira 50 hildako baino gehiago eta zauritu ugari izan ziren.

PROPIO EGINDAKO ERASOAK

Erasoak, gainera, ez dira kasualitatez gertatzen. Azken kasu horretan, Liuk nabarmendu bezala, «propio egindako erasoak izan dira, ezin da besterik pentsatu. Litekeena da egilea Gobernuak gidatutako koalizioa izatea». Koalizio horretan, Siriako Armadarekin batera, Errusiako Armadak eta Hezbollah talde xiitako miliziek hartzen dute parte.

Jose Antonio Bastos MSF-Espainiako presidenteak zioenez, lehen ospitaleek «noizbehinka» jasaten zuten erasoren bat gerra garaian, «lapurtzeko edo talde batek beste bat erasotzen zuelako». Baina azken urteotan salbuespena zena ohitura bihurtu da. «Sirian bai ospitaleak bai osasunaren profesionalak behin eta berriro izan dira indarkeriaren biktima», azaldu zuen.

«Yemenen gertatutakoak gehiago harritu gaitu. Saudi Arabiak dituen arma modernoak ikusita, doitasun handiko erasoak egin beharko lituzke teorian, baina gero eta gehiago eskolak, ospitaleak eta merkatuak erasotzen ditu. Hori ez da inoiz gertatu gure erakundearen historian. Eta ez dira miliziak izan, Saudi Arabia eta AEBak bezalako estatuak daude atzean», salatu zuen joan den hilabetean.



Batzuetan «talka bikoitzeko» erasoak izaten dira. Izan ere, lehen eraso baten ondoren osasun langileak eta sorosleak iristean, berriro erortzen dira bonbak biktima gehiago eraginez

«Orain arte ospitaleak errespetatu egiten ziren, baina hori desagertzen ari da. Izugarria da. Behin hori gertatuta, baina, txarrena ez erantzutea eta normaltzat jotzea litzateke»

Yemenen MSFk lagundutako hiru ospitaleri egin diete eraso. Urriaren 27an Haydangoa erabat suntsituta geratu zen, abenduaren 3an zazpi pertsona zauritu zituzten Ta'izz hiriko osasun zentro batean eta urtarilaren 10ean bonbak Shiarako ospitalean erori ziren, sei hildako eta zazpi zauritu utzita.

Mugarik Gabeko Medikuek azaltzen dutenez, Yemenen borrokan ari diren aldeek gatazka armatuetan izaten diren gutxieneko gizatasun arauak ere mespretxatzen dituzte. «Egunero ikusten dugu harrapatuta dagoen populazioak jasaten dituen ondorio suntsitzaileak. Helburu zibilen aurkako bonbardaketa masiboak gerrarekin batera hasi ziren, 2015eko martxoan», adierazi zuen Raquel Ayora MSFren Ekintza zuzendariak.

«AKATSAK» DIRENEZ, ONARGARRIAK

Gainera, «gero eta gehiago eraso-oei garrantzia kentzen diete edo 'akatsak' direla esaten dute egileek. Joan den astean, Britainia Handiko Atzerri Ministerio-ko idazkariak ukatu egin zuen Saudi Arabiak nahita urratu duenik Gizatasun Zuzenbidea Yemenen. Antza, 'akatsa' bada, onargarria da ospitale bat bonbardatzea. Logika hori erabat iraingarria eta arduragabea da», salatu zuen Ayorak.

Gertatzen ari denak, baina, ez du inor ezustean harrapatu, aurrekariak izan baziren-eta, adibidez, Afganistanen. Urriaren 3an izandako Kunduzko ospitalearen aurkako erasoak oihartzun handia izan zuen nazioartean: gutxienez 30 pertsona hil ziren, tartean hamahiru mediku eta hamar gaixo. MSFk AEBetako Armadari leporatu zion eraso. Salatu zuenez, paziente batzuk ohean erreta hil ziren eta hainbat osasun langilek hankak edota burua galdu zituzten ez-tanden ondorioz. Christopher Stokes MSFren zuzendari nagusiaren esanetan, ospitalean zeudenek argi ikusi zuten «hiltzeko eta suntsitzeko helburua» zuela erasoak. «Arazoa da ez dakigula zergatik», gaineratu zuen.

MSF erasoak gelditzen saiatu zen, baina, OTANekin, AEBetako

Defentsa Sailarekin zein Nazio Batuekin harremanetan jarrita ere, oraindik beste ordu erdiz iraun zuen. Nazioarteko Giza Zuzenbidea jarraituz, gatazkan ziren alde guztiekin hitzarmena zuen erakundeak, ospitaleren neutraltasuna errespetatu zezaten. Izan ere, MSFk gatazkan aldeei bere azpiegituren koorde-nada zehatzak ematen dizkie.

AEBetako agintariek bertsio ugari eman zituzten erasoak azaltzeko, nahasmen horren bitartez izandako ardura estaltzeko asmoz. Kontuak kontu, Afganistango ipar-ekialdeko osasun azpiegitura bakarra zen Kunduzkoa itxita dago egun. Larrialdi egoeretan eta traumatologian goi mailako tratamendua eskaintzen zuen eta 2014an 22.000 lagunek jaso zuten tratamendua bertan. Egun milaka gaixok pairatzen dute bere galera: gehien behar duten unean ez dute inolako arreta medikurik.

Bastosen iritziz, «orain arte ospitaleak errespetatu egiten zi-

ren gatazketan, baina hori desagertzen ari da, tolerantzia handiarekin gainera. Izugarria da. Behin hori gertatuta, baina, orain gerta daitekeen gauzarik txarrena erantzunik ez ematea eta normaltzat jotzea da».

MSF-Espainiako zuzendariak nabarmendu bezala, osasun zentroak eta osasun langileak errespetatu egin behar dira gatazketan, gerran zaurituz gain, gaixotasun arruntak dituzten lagunak ere zaintzen dituztelako, «eta asko dira, egoera horietan elikagaiak gutxiago direlako eta estresa areagotzen delako». Gainera, «gerran, indarkeria, beldurra, mesfidantza... nagusi dira eta elkarri laguntzeko edo gizatasuneko oso gotorleku gu-

txi geratzen dira; horixe ere badira ospitaleak. Horregatik osasun zentroak erasotzeak balio sinboliko handia du».

Siriari buruzko txostenak azaltzen duenez, batzuetan «talka bikoitzeko» erasoak daude. Izan ere, lehen eraso baten ondoren, osasun langileak edo sorosleak iritsi eta zaurituak osasun zentroetara eramaten saiatzen direnean, berriro erortzen dira bonbak, biktima gehiago eraginez. Ospitaleak, eskolak, meskitak edota etxebizitzak erasotzearen biktima nagusiak zibilak izaten dira, noski. MSFk uneotan Sirian laguntzen dituen 70 ospitaleetan, adibidez, iaz 7.009 zibil hildako eta 154.647 zauritu zenbatu zituz-

ten. Biktima horien %40 Ema-kumeak eta haurrak ziren.

Joanne Liuk txostena aurkeztu zuenean, erantzukizunak ere eskatu zituen. Eta, batez ere, Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluan esertzen diren estatuei. «Zibilenganako erantzukizun oinarritzkoenak ez betetzeagatik erantzun behar dute», nabarmendu zuen.

GERRA AKTOREAK NBEN

Segurtasun Kontseiluko lau kidek (AEBak, Errusia, Frantzia eta Britainia Handia) Siriako gerran aktiboki parte hartzen dutela gogorazi zuen Liuk. MSFko presidentek gaineratu zuen Segurtasun Kontseiluko erabakiek euren zibilen eta azpiegitura medikuen aurkako erasoak, setioak eta gose-taktikak debekatzeko dituztela, «eta, hala ere, horixe bera da Sirian egin dutena», salatu zuen. Ez da erraza, noski, erasoaren arduradunak eurak izatea gerra legeak apurtzeagatik ikerketak bultzatzen dituztenak. MSFren arabera, «Segurtasun Kontseiluak hartutako erabakiek betearazteko ezintasunak argi adierazten du euren armadak eta aliatuak direla erabakiak urratzen dituztenak».

MSFk joan den otsailaren 15ean Idlib probintziako Maarat an-Numan hiriko ospitalearen aurkako erasoan benetan zer gertatu zen jakiteko ikerketa independentea ere exijitu zuen, aurretik Kunduzko kasuan egin bezala. Ez dute beraiek egin nahi, «erakundea 'Mugarik Gabeko Ikerlariak' ez bihurtzeko». Horregatik, IHFFC Gertakariak Ikertzeko Nazioarteko Batzorde Humanitarioaren parte hartzea eskatu zuen MSFk. «Maarat an-Numan hiriko ospitalearen bonbardaketa gerra-legeen urraketa nabarmena da eta Sirian osasun instalazioei egindako erasoaren icebergaren tontorra baino ez da», gaitzetsi zuen Liuk. Aire-eraso ugari jasan ostean, 25 pertsona hil ziren ospitale horretan, horietatik bederatzi zentroko langileak. 30 ohe zituen ospitaleak milaka pertsona zaintzen zituen hilero.

MSFk gosea gerra-tresna bezala erabiltzea ere salatu du. Ma-



Kunduzko ospitalean gutxienez 30 pertsona hil ziren AEBetako Armadak egindako eraso baten ondorioz.

Andrew QULTY | MSF



daya hirian, Damaskotik gertu, abenduaren 1etik urtarrilaren 29ra 49 pertsona hil ziren gosez. Beste herri asko ere egoera berean daude Sirian setioen ondorioz, azken asteotan aldeek milaka pertsona inguratutik bizi diren herriotara laguntza eramatea adostu duten arren.

IHESLARIAK

Bestalde, tokialdatutako populazioa ez erasotzeko eskatu du MSFk. Izan ere, Siria iparraldeko Azaz hiriaren inguruetatik 45.000 pertsonak ihes egin dute Turkiako mugarantz, eta beste 55.000 lagunek beren etxeetatik alde egin behar izan dute. Frontetik zortzi kilometro eskasera daude uneotan iheslarion kanpamenduak. Horregatik, operazio militarrek urruntzeko eskatu die MSFk gerrako aktore armatu denei, Siriako gainontzeko lekuetan bezala zibilak eta osasun azpiegiturak babestea helburu.

Nazioarteko arauak urratuz muga guztiak gainditu dituen beste eragile bat Israelgo Armada da. Joan den azaroan soldaduak Hebrongo ospitale batean sartu ziren, armatuta eta mozo-rotuta, gaixorik zen palestinar

Yemenen zibilen kontrako eraso ugari ari da gertatzen. Irudian, duela egun pare bateko erasoaren ondorioa. Britainia Handiko Atzerri Ministerioaren arabera, Saudi Arabiak erietxe baten kontra egindako eraso «akatsa» izan zen. Mohammed HUWAIS | AFP

bat bahitzeko. Operazioan gaitxo zaintzen zegoen senide bat hil zuten tiroz. «Izuturik gaude. Zentroa ez da MSFrena, baina pazientea gure zaintzapean zen. Oso kezkatuta gaude», adierazi zuen Cristina Carreño koordinatzaile medikuak. «Gertatutakoa neutraltasunaren eta misio medikuen printzipioen urraketa da. Nazioarteko Gizatasun Legeak dio osasun zentroak errespetatu egin behar direla, eta horrek indar armatuak bertan sartzea debekatzen du», gaineratu zuen.

Ezin da ahaztu Gazan 2014ko udan Israelek egindako sarraskia ere: 2.251 palestinar hil zituen, tartean 1.462 zibil, eta beste 11.231 zauritu. Bonbardaketek ez zuten ezer errespetatu. Ez etxebizitzak, ezta eskolak ere. Gogoratu behar denez, NBEn eskolak babesleku bihurtu ziren Israelgo Armada ehunka etxe suntsitzen ari zen bitartean. Baina eskola horiek ere eraso egin zituzten israeldarrek, osasun langileak eta garraio bideak bezala. Hamazazpi ospitale, lehen zainketako 56 osasun zentro eta 45 anbulantzia kolpatu zituzten. Eta hamasei osasun langile palestinar hil ziren erasoetan.

Samira ghettoan

Koldo Sagasti

Samira gasteiztarra da, marokoar jatorriko gasteiztarra. Hamabi urte daramatza bertan eta bertan jaio da bere semea. Goi mailako ikasketak dauzka eta egoera ekonomiko eroso, baina bere izenak eta izanak arabiar jatorria salatzen dute. Semea irakaskuntza hitzartuan matrikulatzea erabaki eta zenbait ikastetxetara jo du haurrarentzako aurrematrikula egitera. Bost eskolatan izan da, eta dene-tan, hurrenez hurren, erantzun berbera jaso du: ezetza. Eskaera orria betetzen ere ez diote utzi. Batzuetan erlijioa izan da aitzakia, baina eskola hitzartuak ere, diru laguntza publikoak jasotzen dituzte-nez, behartuta daude erlijio katolikoaren ikasgai alternatibo bat eskaintzera. Besteetan ohartarazi diote eskola horretan «ordaindu egin behar» zela, eta berak «jakina-ren gainean» zegoela erantzun, dirua ez zela «arazoa». Aitzakiak aitzaki irakaskuntza zentro horietan guztietan izena emateko aukera ukatu egin diote. Samirarena Steilas sindikatuak burututako esperi-mentu baten ariketa da. Ikerketa-ren emaitza, baina, argigarria da: bisitatutako ikastetxe guztietan atek itxi dizkiote.

Kontu xelebrea da irakaskuntza hitzartuarena. Eskola pribatuaren ezaugarriak ditu, alegia, ikasleria hautatu eta bazter dezakete arraza, erlijio edota ekonomia irizpideen arabera; baina, aldi berean, diru laguntza publikoez elikatzen dira, baita baztertutako ikaslegaien fami-liek ordaindutako zergetatik da-tozen diru laguntzez ere.

Lehengoa auzokide batek bere kezka azaldu zidan alaba eskola publikoan matrikulatzeko nire asmo irmoa agertu nionean. Auzoko ikastetxe publikoan ikasleen %50 etorkinen seme-alabak direla zio-en; eta, ondorioz, ghetto hutsa bilakatu dela. Ezetz erantzun nion nik, ghettoa, izatekotan, Samirak bisitatutako ikastetxe hitzartuak direla; burbuila horietan kolore, hizkuntza, erlijio eta gizarte maila berekoak baitira ikasle guztiak... Horixe da, bada, ghettoa! •

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko
ZURE KIOSKOAN SALGAI



BIDAIA ALDIZKARIA
7haizetara



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

«Estatu frantsesak ez balu Maroko sustengatuko, aspaldian aske ginateke»

Saheed Taji Farouky palestinarrak zuzendutako “The runner” filmak saharar kirolari baten bizipenak jasotzen ditu: Salah Amaidan atleta. Orain hilabete Baionan eskainitako hitzaldi-eztabaida baten kariatara, KAZETAK elkarrizketatu egin zuen. Saharatik Euskal Herrira nola heldu zen eta Estatu frantsesak Saharako okupazioan duen inplikazioa ditu hizpide, besteak beste, solasaldi honetan.


Hitzaldi eztabaida batean parte hartu duzu berriki Baionan. Zer aipatu duzu?

Ni ez naiz politikaria, kirolaria naiz. Gehienbat Sahara okupatuan kirolari gisa bizi izan dudana historia, Estatu frantsesera heltzea eta asiloa izan ditut aipagai. Aaiunen sortu nintzen, lurralde okupatuan. Frantziara iritsi nintzen Marokoko atletismoko talde nazionalarekin, Maroko ordezkatzeko. 2004an, lasterketa garrantzitsu batean, Parisen, Saharako bandera atera

SALAH AMAIDAN SAHARAR ERREFUXIATUA

Salah Amaidan Saharan sortu zen, Aaiun hiriburuan. 2004. urtean Estatu frantsesak asilo politikoa aitortu zion eta gaur egun Biarritzen bizi da.

Kattin Chilibolost



eta sahararra nintzela erakutsi nuen. Ez nuela nire herria ordezkatzeko eskubiderik erran nuen, asiloaren beharra nuela. Une hartan, nahi ala ez, politikan sartu nintzen. Ez dut hori gustuko, baina ez nuen hauturik. Hemendik nire herriaren independentziaren alde borrokatzen segitzen dut.

Aurkeztuko diguzu labur-labur zuen borrokaren zergatia?

1975. urteaz geroztik, Marokoren manupean bizi gara. Lehenik, 1884an espainolek okupatu zuten gure lurraldea, eta, 1975ean, Mauritania eta Marokorekin akordio bat adostu zuten: herriaren adostasunik eta Nazio Batuen baimenik gabe, Sahara Mauritania eta Marokoren artean banatzea erabaki zuten. Espainiak lekuak hustu egin zituen. Egoera ikusita, Saharako herritarren ordezkari den Fronte Polisarioak bi Estatu horien aurka gerla hastea erabaki zuen. 1979an, mauritaniarrak joan egin ziren, sahararrekin bakea hitzartuz. Alabaina, Estatu frantsesak, Israelek, Irakek eta Saudi Arabiak lagundurik, askatu berri zen lurraldea Marokok hartu zuen. 1991n, berriz, Maroko eta Fronte Polisarioa akordio batera heldu ziren: sahararrek beren independentziaz iritzia eman ahaliko zuten erreferendum bidez. Baina marokoarrek oraindik ez dute akordio hori bete. Sahararrek lurraldearen %30 berreskuratzea lortu dugu; gainerako %70ak okupatuta jarraitzen du.

Aipatu duzu Estatu frantsesak zerikusi handia izan zuela Mendebaldeko Sahararen okupazioan.

Bai, hala da. Frantses Estatuak ez balu Maroko sustengatuko, aspaldian aske ginateke. Baina dena oztopatzen du. NBEko batzordeak Saharako erreferendumaren onespina bozkatu behar duenean, aldi oro, Frantziak be-toa erabiltzen du. Ameriketako Estatu Batuek, Txinak, Britainia Handiak eta Errusiak beti sahararren eskubideen alde egiten dute, baina frantses Estatuak be-toa nahiago du... Marokok saha-

rarren aurka erabiltzen dituen armak frantsesak dira. Frantziak oparituak. Belgika, Saudi Arabia eta Qatarreko armak ere badira tartean.

Alta, Estatu frantsesean sahararren egoerak ez du hainbeste oihartzunik, ezta?

Komunikabideetan ez da auzi hedatua. Pentsatzen dut hemen komunikabideak ez direla aske. Jendeak nahiago du Marrakexera oporretara joan eta Libia edo Siriako giza eskubideen egoeraz hitz egin, Europatik hurbil den Mendebaldeko Sahara aipatu baino. Baina Sahararen okupazioan Estatu frantsesaren inplikazioa errealtate gordina da, eta frantses gehienek ez dakite.

Estatu frantsesak okupazioa babesten du, eta, aldi berean, babes politikoa ere eskaintzen dizue sahararroi...

Bai. Sahararroi babes politikoa aitortzeko eta aldi berean gure eskubideei uko egiteko ados dira. Orain arte ulertu ez dugun zerbait da. OFPRA Errefuxiatu eta Nazionalitate Gabeen Babeserako Bulegoaren paperetan, argi agertzen da lurralde okupatuan torturatuak garela eta tratu txarrak jasaten ditugula. NBE-n, berriz, Estatu frantsesak berak sahararron eskubideen aurka bozkutzen du aldi oro... Hipokrisia hutsa, hain segur.

Zure gisa, zenbat errefuxiatu zarete hemen?

Estatu frantsesean Saharako lurralde okupatutik ihes egindako 1.700 saharar gara. Hemen, Ipar Euskal Herrian, bost. Lurralde okupatuan ia 500.000 saharar dira, eta azken 40 urteotan Aljeria hegoaldeko kanpamenduetan bizi direnak 200.000 inguru. European, berriz, 60.000 bat saharar gara. Lehengusuak eta senideak Suedia, Norvegia eta Belgikan errefuxiatuta ditut. 20 eta 30 urte artean dituzte. Hauturik ez dute ukan, lurralde okupatua utzi beharra izan dute. Manifestaldi batzuetan harrapatuak izanik, sahararrak Marokoko kartzetara igortzen dituzte. Frantziak eta Espainiak euskal preso politikoak beren etxeeta-

tik ehunka kilometrora bidaltzen dituztenean bezalaxe.

Gertatzen ote da Frantziak sahararrak atxilotzea Marokora bidaltzeko?

Oraingoz, ez. Marokok nahiago du hemen asiloa lor dezagun eta ez Saharara itzul gaitezen. Militanteak gara, lurralde okupatuan manifestaldietan parte hartzen dugu egunero. Frantziari eta Marokori ongi datorkie gu hemen gelditzea.

Zeren beldur dira, zuen herrira itzuliz gero borroka indartuko dela?

Bai, egunero manifestatzen gara. Hemen ere jarraitzen dugu. Hona etorri bagara, ez da bizi hobe baten bila, edo lan eske. Hona etorri gara borrokan segitzeko eta Mendebaldeko Sahara ezagutzen ez duten jendeei mezu bat pasarazten saiatzeko. Eta bihar gerla berriz hasiko balitz, errefuxiatu guztiak itzuliko ginateke. Saharar nomadak gara, nahiago dugu basamortuan eta duintasunean bizi. Gure senide guztiak han dira. Hemen militatzen dugun bitartean, gure familiek han ondorioak pairatzen dituzte.

Zer esan nahi duzu ondorioak pairatzen dituztela erratean?

Torturak jasaten dituzte, lan egiteko eskubiderik ez dute, egunero kontrolak jasaten dituzte... Hamabostero, European militatzen duen semea edo alaba duen pertsona batek haraino nola iritsi den kontatu behar dio Polizia marokoarrari.

Saharako lurralde okupatuan sartzea ere ez da gauza erraza, gutxienez atzerritarrentzat...

Gaur egun, atzerritarrek ez dute lurralde okupatuan sartzeko eskubiderik. Orain hamabost egun, esaterako, Norvegiatik eta Suediatik etorritako 63 bat atzerritar kanporatu zituzten. Duela bi ordu eskas, sahararren egoera ezagutzera zihoazen pertsona batzuen hegazkina Dakhla hirira sartzea ukatu dute. Ezezkoa eman diete. Marokok izango ez balu Estatu frantsesaren eta Israelen babesik...



Argazkiak: Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

SALAH AMAIDAN 1982an

jaio zen, **Aaiun** Saharako hiriburuan, Marokok okupatutako lurraldean. 12 urte zituela sartu zuen Marokok bere **atletismo taldean**, eta Rabatera bidali entrenatzera. Indar okupatzailearentzat sari asko lortu ondoren, 2004an **Saharako bandera** jaso zuen. Parisek **asilo politikoa** eman zion.



OKUPATZAILEAREN BANDERA UTZI ETA BERE HERRIARENA HARTZERA AUSARTU

Orain ia hiru urte aurkeztu zen Donostiako Giza Eskubideen Nazioarteko Jaialdian Salah Hmatou Amaidanen bizitzari buruzko “The runner” pelikula. Dokumentalak kontatzen du saharar korrikalaria haurra besterik ez zela hasi zela Marokoko bandera defendatzen, hau da, bere herria zapalduta zuen, eta duen, potentziaren bandera. Makina bat sari lortu zituen Amaidanek, halako batean, Marokoko atletismo taldearen kamisetarekin hasitako lasterketa bat irabaztera zihoanean, bere herriaren bandera jaso zuen arte. Hor bukatu zitzaizkion Mohamed VI.a erregearen hitz goxoak eta agintariaren beste aurpegia ezagutzeko aukera izan zuen. Asilo politikoa eskatu beharrean izan zen, eta frantses Estatuak eman egin zion.

Geroztik Saharako banderaren koloreekin aritzen da korrika lasterketa ezberdinetan: «Nire borrokak berrogei urtez okupatuta egon den nire herriaren borroka islatzen du», esan zuen Donostian egindako aurkezpenean.

«Korrika ari naizela, helmugara iristea izaten da pentsamendu nagusia, baina saharar herria buruan eramaten dut». Euskal Herriak ere badu leku bat bere bihotzean, «bertako jendearengatik eta saharar herriari laguntzeko horrenbeste elkarre dagoelako». Esaterako, 2010eko Behobia-Donostia lasterketa prestatzen ari zela jakin zuen Aaiungo protestaldi batean 18 urteko lehengusua hil zutela Marokoko segurtasun indarrek.

Saeed Taji Faroukyk zuzendu zuen dokumentala. Palestinar bat saharar baten bizitza kontatzen, okupazioa jasan behar izan dutenek beste inork baino hobeto ulertzen baitute okupaziopean bizitzea zer den. Faroukyk hiru urte egin zituen Amaidanekin, okupazioak eragiten dituen erreakzio guztiak jaso nahi baitzituen: «Pelikula bat egitea bera ere erresistentzian jarduteko beste modu bat da. Matxinadak itxura asko har ditzake. borrokatzeko era berriak bilatu behar dira», esan zuen zuzendari palestinarrek Donostian.



Ander Gortazar Balerdi- @derzu-uzala
Arkitektoa

«Perpetuum mobile?»

Garbera merkataritza gune-
ari buruz idatzi nahi nuen
aste honetan. Zehazki,
Garbera handitzeko Do-
nostiako Udalak hartu
duen erabakiaz idatzi
nahi nuen, baina gaiez aldatzea era-
baki dut azken orduan. Hiriko merka-
taritza gune handiena are gehiago za-
baltzea, irratan gertuko merkataritza
sustatzeko kanpaina publikoak egiten
dituzten bitartean, 3.000 karakterek
adina balio duen kontraesana da –bide-
nabar, proiektua erakusketa publikoan
izango da datozen bi asteotan–.

Ordainetan, dikotomia bati buruz ari-
tuko naiz, ustekabeen eskuratu dudak
“Sedentarismo nómada: el derecho a la
movilidad y el derecho a la quietud”
ikerketari tiraka. Dikotomia, beraz, bi
terminoren artekoa: alde batetik, aski
ezaguna den mugitzeko eskubidea, hau
da, pertsona orok modu askean mugi-
tzeko duen eskubidea; bestetik, geldita-
sun edo patxadarako eskubidea, alegia,
gutxiago mugitzeko eskubidea, gure bi-
zibeharrei kalterik egin gabe betiere.

Artikulu horretan, Eduardo Bericat
egileak hiru mugikortasun mota aipa-
tzen ditu: biologikoa, mekanikoa eta
elektronikoa. Mugikortasun biologikoa


giza organismoaren (edo animalia ba-
ten) mugitzeko ahalmenaren ondorio
zuzena da. Gizakiak energia iturri me-
kanikoak bere nahieran kontrola ditz-
keenean, orduan lortzen da mugikorta-
sun mekanikoa –lurrun makina
mugarri izan zen–. Eta elektronikoa, az-
kenik, materia mugimendu detektaga-
rririk gabekoa da, egun Internetek iru-
dikatzeko duen mugikortasun birtuala
nolabait.

**Trenaren ondotik, autoa da mugikor-
tasunean eragin handiena izan duen
asmakizuna, mugitzeko eskubidea
eta patxada eskubidea errotik eralda-
tu dituen.** Bericatek paradoxa batekin
azaltzen du. Dio, ikuspuntu ideal bate-
tik, autoa urrun dagoenera gerturatze-
ko erreminta bat dela, baina, aldi bere-
an, egiturazko ikuspuntu batetik, beste
egoera batean gertu izango genukeen
hori urrun egotearen eragile ere badela
autoa. Alegia, autoak gure ingurunea
eta lurraldea errotik aldatzeko gaitasu-
na izan duela, eta, mugitzeko ustezko
askatasuna ematen badigu ere, prakti-
kan mugitzeko derrigortasuna susta-
tzen duela, auto gidariei baina baita ga-
rraio publikoaren erabiltzaileei eta
oinezkoiei ere.

Bizitzak mugimendua behar du,
ados, bizitzak gelditasuna, are patxa-
da, behar duen modu berean. *Perpe-
tuum mobile*, baina neurrian. Zenbat
okertzen da pertsona baten bizi kalita-
tea, sistemak bere mugitzeko nahiei
inposatzen dizkion muga edo murriz-
keten erruz? Eta zenbat okertzen da
pertsona baten bizi kalitatea, mugitu
beharra duenean bere nahiaren kon-
tra?

Mugikortasun sistema mekaniko pu-
ru batek, non mugimendu nagusiak
autoz, autobusez, trenez, hegazkinez
edota motozikletaz egin behar diren,
oinezkoaren eta txirrindulariaren mu-
gikortasun biologikoa murrizten du,
eta zaildu egiten ditu halaber pertso-
naren neurrira egindako “lurralde-uni-
bertso komunitarioak”.

**Gatazka bat bada, beraz, mugitzeko
eskubidea eta patxada eskubidearen
artekoa.** Bericatek lurralde egitura be-
rri bat aldarrikatzen du, non pertsonok
mugitzeko behar gutxiago izango du-
gun, baina, aldi berean, askatasun han-
diagoz mugitzeko aukera izango du-
gun. Lurralde egitura berri bat,
Garbera zabaltzeak sinbolizatzen duen
guztiaren kontrakoa. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

2005eko udako Arnaldo Otegi hura

H erri txiki honetan edonork izango du gogoa Arnaldo Otegirekin lotutako anekdota, bizipen edo oroimenik (Lizarra-Garaziko Akordioak “ospetsu” bilakatu zueneko, 2002an Ertzaintzak bere izena idatzita zerraman pilota jaurti zioneko, 2004ko maiatzaren 11n gezur masiboa biluztu zueneko, Belodromoak, Anaitasunakoa...). Bada, gaurkoan, nik neuk bizitako bat kontatuko dut. 2005eko uda aldera, elkarrizketa formatuan liburua osatzen hasi ginen GARA. Inaki Iriondo eta biok zazpi-zortzi aldiz elkartu ginen Arnaldorekin, hemengoaz eta hangoaz; iraganaz, orainaz eta geroaz; kontu garrantzitsuez zein xumeez solas egiteko. Lehen topaketan, kortesia logikoz baina baita lanak gutxieneko planifikazioa eskatzen zuelako ere, hurrengo egunean zertaz arituko ginen aurreratu nahi izan genion (ez galdera zehatzak, gaia baizik). Gure harridurarako berak ezetz esan zigun, ez zela beharrezkoa, ez zuela ezer presatzeko asmorik eta elkarrizketa alde aurretik ezer jakin gabe abiatzen bazen naturalago-edo aterako zela liburua. Aitortzen dut horrelakorik ez zaidala berriz inoiz gertatu, kontrakoa baizik: zenbat elkarrizketatuk ez dute eskatzen gaiak, eta zenbaitetan baita galderak ere, aurretik pasatzea? Zenbatek denbora hartu eta idatziz erantzuteko aukera ematea?

Bigarren hitzorduan baieztatu genuen; horrela jokatzeko arrazioa izan bazuen Otegi. Edozein zela galdera (torturatik aireportuetara, inperialismotik nekazaritzara...), bat-batean eta zentzuz zetorren erantzuna. Begi bistakoa zen gure zalantza guzti-guztiak aurretik Arnaldoren burutik pasatakoak zirela eta hausnarketon ondorioak edonork ulertzeko moduan adierazten bazekiela. Ados izan ala ez, hor bazen Euskal Herrirako eta euskal herritarrentzako ideia landu bat, plan oso bat. Transkribatzeko orduan izan genuen azken ustekabea: ez zen, beste elkarrizketetan gertatzen den bezala, ezer garbitu, moztu, luzatu, argitu edo txukundu beharrik. Arnaldo berak ahoskatu bezala heldu zen “Bihar Euskal Herrira” inprentara. Ez dut uste sekula santan liburu bat idaztea hain erraza izan denik...

Hiruzpalau urte geroago, negoziazio prozesua eta espetxealdi pare bat pasata, berriro berarekin hainbat aldiz

luze mintzatzeko aukera izan genuen, era informalean gehienak. Ordurako estrategia aldaketaren uste sendoa eta diseinu borobila zituen buruan jira eta buelta, eta bere onuraz konbentzitzeko pasio eta ahalmen soberakoa. Lan kolektiboa izango zen irauli hori ezinbestean, baina argi dut Otegiren ekimenik gabe ez zela abiatuko; edota abiatuta ere, bere bultzada izan gabe ez zela oso urrutira helduko. Lidergoa deitu ohi zaio horri. Eta nerabetsun mailako nostalgiak alboratuta, zinez edozein parametrotik irakurrita euskal independentistentzako 2008ko agertoki hura 2016ko hau baino emankorragoa al zen?

Beraz, Otegiren gaitasuna itzela delakoan nago. Baina tranpa ugariri izkin egin beharko die, hurrengo astetik hasita: etsaiek jarritakoak, noski; etxeko arazoek eragindakoak, dudarik gabe; eta ezin ahaztu bera barruan zela munduak –bereziki komunikazioaren munduak– bizitako eraldia. Egungo nahasmena, fribolitatea eta zuzenta-

Otegiren gaitasuna itzela da, baina tranpa ugariri izkin egin beharko die; etsaiek jarritakoak, noski; etxeko arazoek eragindakoak, dudarik ez; eta ezin ahaztu barruan zela munduak bizitako eraldia

sun politikoaren tirania buru argienak eta sen onena itozteko modukoak dira-eta.

Aukeran, 2005eko uda hartako Arnaldo Otegi berraurkitu nahiko nuke. Bere herriaren zein munduaren edozein arazo arrotz ez duena. Ezker abertzalearen ziborrari begira gelditzen ez dena. Eguneroko lokatzak zapaldu baina urruti begiratzen duena. Iraganean trabaturik geratu gabe, geroa buruan duena. “Gora gu eta gutarrak” leloari “zuek” eta “haiek” ere eransten dakiena. Arriskuak baino, aukerak aztertzen dituen. Irabazteko gogo duena, ez galtzekoa, ezta berdintzekoa ere. Argi eta arrunt mintzatzen dena. Burutik burura eta bihotzetik bihotzera. Sakon baina gizatasunez. Enpatikoa eta sinpatikoa. Sortzailea eta, agian, birSortzailea. Norbaiti mina eman arren, egia esaten duena. Handitasuna apaltasunean has ten dela jakin badakiena. Ongi etorri eta zorte on! •

{ txostena } Amagoia Mujika

HAURREN ESKUBIDEAK

Etxe kaleratze prozesuetan haurrek ez dute etxea bakarrik galtzen

Nazio Batuen Erakundearen 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak zehatz jasotzen ditu txikienei oinarritzko eskubideak. Giza eskubideen inguruko nazioarteko itunetan atxikimendu gehien jaso dituen da, munduko herrialde guztien babesa jaso baitu –195 guztira–, AEBena eta Hego Sudanena kenduta. Gainera, haurren eta nerabeen eskubideak bultzatu eta babesteko nazioarte mailan dagoen tresnarik onena bezala hartzen da, 18 urtetik beherako pertsonen eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak batzen dituelako.

1989ko Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak paradigma aldaketa garrantzitsua ekarri zuen haurtzaroiari begiratzeko moduan: babestu beharreko subjektu izatetik eskubide propioak dituen subjektu izatera pasatu baitzen.

Aipatu bezala, Estatu espainolak bat egin zuen Nazio Batuen hitzarmen horrekin eta, ondorioz, ez da aukera bat, derrigorrez bete beharreko hitzarmen bat baizik. «Oso ezezaguna den hitzarmena da, baina apenas hartzen da kontuan; oso epai gutxitan agertzen da. Herritarrek ez dakite benetan zeintzuk diren haurren eskubideak. Niretzat arazoa da haurrak aparteko mundu pribatueta uzten ditugula eta ahaztu egiten zaigula haurrak eskubide politiko eta zibilak dituzten pertsonak direla. Ez dutenez bozkatzeko, ez zaie garrantzirik ematen eta familiarrek babestera jotzen dute. Iruditzen zait benetan beldurra dugula haurrak entzuteko eta beren iritziak kontuan hartzeko. Eta hitzarmenaren arabera, haurrak entzun egin behar ditugu, eskubideak dituzten pertsonak direlako».

Hortik abiatuta, etxegabetze prozesuetan ematen diren epaietan zer-nolako presentzia

1.572

2007-2012 bitartean Gipuzkoan gutxienez 1.572 etxegabetze eman ziren. Datu orokorraren arabera, etxetik kanporatuak izan diren familien %75 inguruk 18 urtez azpiko seme-alabak zituzten beren kargu.

%22,2

Arartekoaren arabera, 2013an EAEn 15 urtez azpiko 66.458 pertsona zeuden eta horietatik %22,2k beren gutxieneko ongizate maila arriskuan zuten.

Joana Miguelena EHuko Garaian Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Ikertaldeko kidea da. Gipuzkoako etxegabetzeek haurren eskubideetan nola eragiten duten ikertu du, Unicef saritutako lana. Jon URBE | ARGAKZI PRESS

eta eragina dauka hitzarmen horrek? Abiapuntu hori izan du Joana Miguelenaren graduondoko lanak. Miguelena Euskal Herriko Unibertsitateko Garaian Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Ikertaldeko kidea da eta Gipuzkoako etxegabetzeek haurren eskubideetan nola eragiten duten jaso du bere proiektuan. Oraintsu Unicef saritu egin du egindako lana.

Azken urteotan Euskal Herrian eman diren etxegabetzeen inguruan datu ziurrak biltzea ez da lan samurra. Zenbaki gutxi daude, eta daudenak oso desberdinak dira zeinek ematen dituen arabera. Arartekoaren arabera, 2013an EAEn 15 urtez azpiko 66.458 pertsona zeuden eta horietatik %22,2k beren gutxieneko ongizate maila arriskuan zuten. Miguelenak Gipuzkoan jarri du fokua. Hipotekak Kalte Eginikoen

Plataformako (PAH) Ada Colau eta Adria Alemanyk maneiatzen dituzten datuen arabera, 2007-2012 bitartean 1.572 etxegabetze gertatu ziren Gipuzkoan. Datu orokorraren arabera, etxetik kanporatuak izan diren familien %75 inguruk 18 urtez azpiko seme-alabak zituzten.

«Baina non daude haur horiek? Etxegabetzeen inguruko informazioa iristen da, baina hor ez da haurrik agertzen. Zeharka aipatzen da kalean utzi duten familian haurrak bazirela, baina ez da haiei buruz hitz egiten, ez da esaten muturreko egoera horiek zer-nolako eragina duten haurrengan, ez da salatzen beren oinarritzko eskubideak etengabe zapalduak izaten ari direla...», nabarmendu du Miguelenak.

Bere lanak mahai gainean jartzen duen ondorioa, tamalez, ez

da oso pozgarria: «Nazio Batuen hitzarmenaren izaera loteslea eztabaida ezina bada ere, etxegabetze prozesuetan eman diren epaietan apenas daukan presentziarik, apenas hartzen den kontuan». Salbuespen gutxi batzuk badaude, hala ere. «Madrilen bada epai bat nabarmentzea merezi duena. Epai batek emakume baten eta bere hiru semeen etxegabetzea geldiarazi zuen haurrek ikasturtea amaitu eta Madrilgo Erkidegoak etxebizitza duin bat ziurtatzen zien bitartean. Salbuespena da, baina hor dago», nabarmendu du Miguelenak.

Baina, nola eragiten dute etxe kaleratzeek haurrengan? Zein eskubide urratzen dituzte?

POBREZIA EZ DA IKUSTEN

Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa, Nils Muiznieks, Estatu espainolean izan zen 2013. urtean eta txosten bat osatu zuen krisiaren eta murrizketen ondorioz pobrezia egoeran dauden haurren inguruan. «Txosten horretan etxe kaleratze prozesuek haurrengan duten eragina oso kaltegarria dela nabarmentzen da; estres eta aztoramendu handia eragiten die, bereziki hezkuntzaren eta osasunaren arloan. Gainera, etxe kaleratzeak poliziek egiten dituztenean maiz oso traumatikoak gertatzen dira haurrentzat eta beren bizi baldintzak asko okertzen dira, gehienetan nora jo ez dutela geratzen baitira. Txosten horren arabera, etxe kaleratzeek askotan jendarte bazterketa ekartzen dute, familia askok ez baitituzte laguntza sozialak eskatzen haurren kustodia galtzeko beldurra dutelako», jaso du bere lanean ikertzaile irundarrak.

Errealitate latz horretan dauden haurren kopurua garrantzitsua izanagatik, jendartearen zatirik handiena horiek ikusi gabe bizi da bere egunerokoan, «pobrezia ez delako ikusten», iritzi dio Miguelenak. «Askotan entzuten dut jendea esaten 'kri-





sia egongo da, baina tabernak beteta daude poteo garaian'. Pobreziarik ez da ikusten hor, pobrezia etxean geratzen delako. Egoera horretan dauden haurrak ere ez dira ikusten, ezin dutelako joan dantzako klaseetara edo ingeleseko akademiara. Pobrezia ez da ikusten ez delako aisialdira ateratzen», segitu du.

Honaino iritsita, bere lanean Joana Miguelenak garbi bereizten ditu pobrezia eta jendarte bazterketa. «Berdinak balira bezala erabiltzen dira askotan, baina ez da zuzena. Jendarte bazterketak alderdi asko ditu, ez bakarrik baliabide ekonomikoei dagokiena; lana, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, harreman pertsonalak, parte hartze politikoa eta soziala... Pobre izan zaitzek, baina ez egon jendarte bazterketa egoeran, edo, alderantziz, baliabide ekonomikoak izan eta jendarte bazterketan egon». Hori argituta, egia da etxegabetze bat sufritu duten herritarrak jendarte bazterketa izateko arrisku handiagoan daudela. «Etxea galtzen duzunean Asnef zerrendan sartzen zaituzte, hau da, ordaintzen ez dutenen zerrendan, eta horrek izu-

garri zailtzen du aurrera egitea. Ezin duzu furgoneta bat hartu *renting*-ean, ezin duzu lokal bat alokatu, etxebizitza bat alokatzeko zailtasunak dituzu, ezin duzu ADSLrik kontratatu, irabazten duzun apurra bankuak kentzen dizu zorra kitatzeko... Sarri egoera horretan dagoen jendeak beltzean lan egiten du, beltzean kobratu. Eta horrek beste mundu batera zaramatza; ez duzu kotizatzen, ezin duzu laguntza sozialik eskatu... Hortaz, jendarte bazterketan erortzeko arrisku handiagoa daukazu».

PROFILA ALDATZEN ARI DA

Joana Miguelenak lana galdu eta hipoteka ezin ordaindu geratu diren familiak elkarrizketatu ditu bere lana egiteko. Eta aldaketak sumatu ditu. «Krisiaren hasieran langabeziak familia zaurgarrienak kolpatu zituen eta etxe kaleratzeak ere testuinguru horretan gertatu ziren. Azken urteotan, baina, aldatu egin da profila; klase ertainak, autonomoak, abal-emaileak, enpresari txikiak edota familiaren etxebizitzan geratu diren banandutako emakumeak daude etxe kaleratze arriskuan».

Loteslea

Nazio Batuen Erakundearen 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin bat egiten dute munduko herrialde guztiek, AEBek eta Hego Sudanek salbu. Ez da borondatezkoa, derrigorrezkoa baizik, baina apenas daukan presentziarik eguneroko epaietan.

PAH plataformako abokatuak nabarmentzen duenez, «egoera hau krudeltasun handiarekin bizitzen ari den sektore bat dago. Zaintza amaren kontu geratu den banaketa kasuetan, epaiak zehazten du hipotekaren %50 aitak ordaindu behar duela, eta, beste erdia, amak. Askotan gertatzen da amak, kostata, baina bere parte ordaintzea, eta, aitak, berriz, ez. Eta horrek etxegabetze arrisku bizian jartzen du familia hori».

Genero ikuskeratik, desberdintasunak igarri ditu Miguelenak. «Baliabide faltaren eta etxe kaleratzearen aurrean, emakumeek eta gizonek askotan desberdin egiten diete aurre egoera horri. Ezin da orokortu, ikerketaren helburua ere ez zegoen hor jarria, baina bistan geratu da desberdintasunak daudela», esan du. Elkarrizketatu dituen familien hitzetan ere igartzen dira desberdintasun horiek, «emakumeak hartzen du 'aurrer' esateko ekimena. Iruditzen zait gizonezkoak lotsa handiagoa sentitzen duela, huts egin duela sentitzen duelako», dio Miguelenaren ikerketan etxea galdu duen emakume batek. Eta

haren alabak, «ama mugitzen zen, bera joaten zen toki guztietara. Aitak ez zuen ezer egiten amari laguntzeko».

PAHko abokatuaren esanetan, «gizonezkoak bere duintasuna zaurituta sentitzen du. Bera sentitzen da taldeko lehoia, besteak zaindu eta mantendu behar dituen, eta huts egin duela sentitzen du. Emakumezkoak, berriz, irtenbideak topatzen ditu; plataformara joaten da, Caritas elkartera joaten da, edozertan lan egiten du diru pixka bat ateratzeko, beharrezkoa den guztia».

EMOZIOAK DANTZAN

Etxe kaleratzearen arriskua ikusten den unetik beretik sortzen da erruduntasun sententzia eta lotsa. «Pentsatzen duzun lehen gauza hanka sartu duzula da, ederra egin duzula. Errudun sentitzen zara ezin duzulako hipoteka ordaindu eta ezin diezulako seme-alabei jaten eman. Oso gogorra da. Gainera, Caritasera eskatzera joan behar!», kontatzen du etxea galdu duen emakume batek.

Seme-alabekiko duten harremanean eta jarreraren ere eragiten du egoerak eta horrek area-

gotu egiten du errudun sentitze hori: «Iritsi zen jolasteko indarrik ere ez nuen unea eta horregatik ere errudun sentitzen nintzen, ama txarra izaten ari nintzelako, ez nintzelako haiekin jolasten eta nire tristurara ekartzen nituelako. Baina une batean nekatu egiten zara borroka egiteaz eta bizirauten baino ez zara saiatzen».

Pertsona helduarentzat kolpe latza da etxea galtzea. Berdin-berdin haurrentzat, edo latzagoa zenbaitetan, ez duelako izaten gertatzen ari denaren inguruko informaziorik. Izan ere, gurasoen lehen joera haurrei gertatzen ari dena ezkutatzea izaten da, sufritu ez dezaten.

«Gurasoek hitz egin behar zutenean, anaiarekin jolastera bidaltzen ninduten gelara. Nire anaia aztoratuta zegoen, bat-batean negarrez hasten zen, bat-batean barrez... eta aitak buila egiten zionean oso urduri jartzen zen», kontatzen du etxegabetze bat pasa duen haurrak.

Erruduntasun eta lotsaren ondoren, kasu batzuetan behintzat, ahalduntzea dator Miguele-

naren esanean. «Plataformara gerturatzen diren pertsonak konturatzen dira ez direla errudunak, biktimak baizik, eta borrokan hasten dira. Plataformek egin duten lana izugarria da, jende askok esaten du plataformak bizia salbatu diola. Kolektibo baten parte sentitzen lagundu die, gainera».

KUSTODIA GALTZEKO BELDURRA

Etxerik gabe geratu diren eta haurrak dituzten familien artean igartzen da kezka larri bat: haurren zaintza galtzeko beldurra. Miguelenak bere lana egiteko elkarrizketatutako familietan ere bazen kezka hori. «Kasu batean amak medikuari aipatu zion bere kezka eta medikuak lasaitu egin zuen, esan zion inork ez ziola haurren zaintza kenduko ama ona zelako eta bere eginbeharrak bete zituelako. Bigarren kasuan, baina, amak mehatxuak jasan zituen. Zerbitzu sozialetan bere kezka agertu zuenean ere ez zuten askorik lasaitu. Aldundiko gizarte langilearekin hitz egin nuenean garbi esan zidan horrelako kasuetan ez dutela esku hartzen,

Beheko argazkian, Bizkaian herritarrek gerarazitako etxegabetze bat. Etxea galdu dutenek plataformetan indarra hartzen dute, eta errudunak baino biktimak direla konturatzen dira. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

ez dutela zaintzarik kentzen etxe kaleratze bat gertatu delako. Inorri bere haurren zaintza kentzeko beste baldintza asko eman behar direla».

BORTIZKERIA GEHIAGO

Etxe kaleratze prozesu batean ohikoa da familian egoera bortitza goak ematen hastea, errietak eta horrelakoak. «Haurrek, askotan, ez dakite benetan zer pasatzen ari den, inork ez dielako kontatzen. Ez dakite zehatz zergatik, baina beren mundua aldatzen ari da goitik behera. Pentsa horrek nolako frustrazioa eta egonezina sortzen dituen», hasi da Miguelena.

Haurren eta nerabeen jarrera aldatu egiten da eta eskolako emaitzak ere asko kaskartzen dira. Gizarte langile baten hitzetan, «etxean dirua falta da, gurasoak urduri daude, janari eskasia dago... Askotan, gainera, ez daude oso osasuntsu markal jaten dutelako, eta eskolan nekatuta daude, ez daukate jolasteko gogorik. Askotan jarraera ere aldatzen dute, haserretu egiten dira eta errebeldeago jo-

katzen dute. Horrek guztiak eragina dauka eskolako errendimenduan».

Askotan, gainera, lagunartea ere aldatu egiten da. «Askotan mindu nauen kontua da. Elkarriketatu ditugun nerabeen kasuetan, etxegabetze prozesuan lagunak aldatu dituzte, ez beraien hala nahi zutelako, betiko lagunak huts egin dietelako baizik. Beren lagunak gehien behar zituzten unean, haien aurreiritziak eta beldurrak sufritu zituzten. Nerabe batek kontatu zidan, kuadrillaz aldatu zen 'ja ez nuelako nire lagunak zeukaten adina, pobre bihurtu nintzelako'. Bizi garen jendarte motaren inguruan zer pentsa eman didate testigantza horiek», esan du ikertzaileak.

OINARRIZKO ESKUBIDEEN URRAKETA

1989ko Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak 54 artikulua ditu, lau zutabe nagusiren gainean emanak: diskriminatua ez izateko eskubidea; haurraren interes gorena babesten duena; bizitzarako, biziraupenerako eta garapenerako

Rolak

Etxegabetze prozesu askotan generoaren arabeko rol banaketa nabarmena ematen omen da. «Gizonezkoak bere duintasuna zaurituta sentitzen du. Bera sentitzen da taldeko lehoia, besteak zaindu eta mantendu behar dituen, eta huts egin duela sentitzen du. Emakumeak, berriaz, irtenbideak topatzen ditu; plataformara joaten da, Caritasera joaten da, edozertan lan egiten du...».



eskubidea eta iritzia izateko eskubidea.

«Nik artikulu horietatik batzuk hartu nituen; familiarena, haurraren interes gorena, hezkuntzarena, aisialdiarena... eskubideak beren artean mende-koak dira eta zatitu ezinak. Beraz, bat urratzen duzunean besteak urratzen dituzu. Garbi dago etxe kaleratzeen kasuan haurraren oinarriko eskubideak urratzen direla, etxebizitza edukitzeko eskubidetik askoz harago. Haurraren interesak ez dira inoiz lehenesten, ez etxebetzeen prozesuan ez beste egoera askotan ere», iritzi dio Miguelenak. «Oso garrantzitsua da haurrak esan behar duena entzutea, bere iritzia jasotzea. Ez dakit nork eta nola, baina horretarako tresnak sortu behar dira. Eta hortik abiatuta haurrari atentzio psikologikoa eta pedagogikoa eskaini behar zaio».

Joana Miguelenak egindako lan osatua irakurrita ematen du jendarteak ez duela tresna nahikorik sortu etxebetzeen inguruan ematen diren egoerei erantzuteko. «Aurrerapausoak



Ezkutatu

Pertsona helduarentzat kolpe latza da etxea galtzea. Berdin-berdin haurarentzat, edo latzagoa zenbaitetan, ez duelako izaten gertatzen ari denaren inguruko informazioa. Izan ere, gurasoen lehen joera hurrei gertatzen ari dena ezkutatzea izaten da, sufritu ez dezaten.

ematen ari dira. Jendea gero eta gehiago ari da kontzientzia hartzen, baina oraindik urrun gaude benetan etxebetze batek zer dakarren ulertzeko. Oraindik jende askok distantziatik begiratzen duen errealitatea da, berari sekula halakorik ez zaiola gertatuko pentsatuta». Eta distantzia hori aurreiritziz beteta dago, bai haurren artean eta baita helduen artean ere. «Jendeak gaizki begiratzen dit kafe bat hartzen ikusten banau», kontatzen du etxetik kaleratua izan den emakume batek.

HELDUEK ETA HELDUENTZAT

«Bizi dugun jendarte helduek egina eta helduentzat egina da, hori da arazoa. Haurrak etorkizunean irudikatzen ditugu, gero zer izango diren daukagu buruan etengabe, eta ahaztu egiten zaigu zer diren orain. Oraindik izango ez balira bezala jokutzen dugu. Etorkizuneko pertsonak bezala ikusten ditugu, baina gaur egungo pertsonak dira, oraina dira eta ez etorkizuna», bukatu du Joana Miguelenak.

Ezezkoak

Mirari Martiarena

Lanak pilatu ohi zaizkit. Beti izan naiz egitekoak azken momentura arte uzten dituen horietakoa. Presiopean hobeto funtzionatzen dudanaren aitzakia askotan erabili dut. Baina presioak gain hartzen didanean kontrola galtzearen sentsazioa izaten dut. «Hau ere pasako da!» esan eta aurrera.

Kontua nahasten hasten da espero ez dituzun lanak iristen direnean. Hilabete-ko azken astean zure betiko lana, kolaborazioak, etxeakoak, baserrikoak eta marroiak elkartzen dira. Azken orduko marroiak gainera, eta «zuk oso ongi egiten duzu» esaldi politarekin makilatuta. Lore moduan esan badizute, nola esango diozu ezetz? Nire aingerutxo aurpegiare-

kin irribarre egin, barrutik sua hartu eta baiezkoka eman. Hor konturatzen zara larunbateko parrandako alkohol guztiak baino kalte gehiago egin diola irribarre horrek zure gibelari.

Kosta egiten zait ezezkoak ematea. Ez dudala egingo edo ez dudala egin nahi esatea gaizki sentitu gabe. Bestearengan pentsatzea nire buruarengan baino lehen. Eta horrela bukatzen dut boladaka zurrumbilo baten barruan: gauzak zein ordenetan egin ezin erabaki, egin beharrekoak ahaztu edo Juan Pablo II.a aita santuaren amoranteari buruzkoak behar ez dizkiozun lagunari bidaliz (zuek ere jakin dezazuen: gure amona Pilarrek aspaldi esana zuen, ez da azken asteetako kontua).

Orduan nire osasun mentala lehenetsi behar dudala esaten diot nire buruari. Etxean dudan ezezkoen kutxa zabaltu eta banatzen hasten naiz. Lehenengo ezezkoa banatzea da zailena. «Ez dakit» batekin hasten delako. Baina badakizu «ez dakit» horrek zalantzarako bidea uzten duela eta konbentzitu egingo zaituztela. Beraz, hasieran ezezkoak asmatutako aitzakiaren batekin joango dira apaindurik. Baina horiek gastatu ondoren ezezkoak ematen dira gaizki sentitu gabe eta aitzakiarik asmatu behar gabe. Eta orduan sentitzen duzu «oso pozik nago» esaldia.

Azken asteetan zurrumbilo baten barruan nagoela sumatzen dut. Ezezkoen kutxa begiratu dut eta hutsik dago. Betezera noa. •



Ainara
AZPIAZU
«AXPI»

iRRITZIA:

AUTONOMOAREN AZ

OSO ONA UNAIREN KOMIKIA, JEJE
HALERE ASTONOMO IZATEAK
BADITU GAUZA ON ASKO...




NAHI BEZALA JANTZI ETA ORRAZ
ZAITEZKE LANERA JOATEKO...



LANTOKIRA
BIDEAN
EZ DUZU
DENBORARIK
GALTZEN...



NAHI DUZUNEAN
EGIN DEZAKEZU LAN...



Pixka bat
gehiago,
pixka
bzzzz



JANARIA PRESTA DEZAKEZU
LANEAN ARI ZAREN BITARTEAN...



ETA ALDI BEREAN GAUZA AAASKO EGITEN
IKASTEN DUZU (DERRIGOR)



MEMORIAREN HAUSPOAK

Euskodok elkartea, boluntarioen lan ordainezina oroimena elikatzeke

📁 JENDARTEA / Nerea Goti

Euskodok elkartean diotenez, baliteke ale bakar batek beste munduko garrantzirik ez izatea, baina bilduma bat historiaren zati bat da. Duen balio historikoa, sinbolikoa, ekonomikoa, etengabe hazten da urteekin. Egunkariak, aldizkariak, eskuorriak edo karteak herri baten memoria osatzen dute, eta horren hauspoa dira boluntario hauek.

Iraganera bidaiatzeko modu asko dago. Usain, doinu, hitz batek... bizi izandako une batera eramane gaitzakeen bezala, paper zati batek ere magia hori eragin dezake. 1937. urteko "Euzko Langile" egunkariaren lehen orrialde bat jarri digute begi aurrean. «Batallones de Retaguardia, batallones de

trabajo, las fortificaciones tienen que garantizar la inexpugnabilidad de nuestro territorio» dio izara formatuko orrialde horixkaren titular nagusiak. Nola baiteko zirraratxo eragiten du une batez garai horretara bidaiatzeak. Gerra bete-betean (horrek esan nahi duen guztia-ekin) irakurriko zuen askok titularra, eta, egun, ia 80 urte ge-

roago beste begi batzuen aurrean agertu da. Egunkari zaharrak bezala, kartelak, aldizkariak, liburuak... ere gordetzen dituzte Euskodok elkartean. Bada, bertako kideek egiten duten lana erakutsi diote GAUR8ri.


Hamabost lagun inguruk osatzen dute Euskodok. Zehatzago esateko, hamabost kide dira lan antolatu jarraituan dabilzanak,

baina inguruan beste laguntzaile batzuk ere badituzte noizean behin esku bat botatzeko, horiek guztiak ere Euskodokeko kideak. Edozein ekarpen egiten duen oro, gainera, ongi etorria da.

Euren misio nagusia orotariko dokumentazioa biltzea da: liburuak, aldizkariak, kartelak, pegatinak, panfletoak, egitarauak... «Euskal Herrian ateratakoak edo euskal gaiei lotuta daudenak». Zazpi herrialdeetan zehar (eta inoiz baita gertuko beste lurralde batzuetan ere) «galkorra den materiala» biltzea eta jasotzea da taldearen zeregin nagusia. Boluntario lana da eurena, baita noizean behin laguntzen dietena ere. Sare hori garatu eta kudeatzea funtsezkoa da elkartearentzat.

Euskodok 2004an jaio zen, baina aurretik ere izan ziren dokumentuak berreskuratzeko saiakerak. Egitasmoaren arima nagusietakoa den Luis Angel Gaintzak eginak zituen hainbat joan-etorri asmo horrekin. Taldearen hastapenak gogora ekarrita, Ander Manterola Euskal Herriko Atlas Etnografikoko zuzendariak kontatzen du 80ko hamarkadan Gaintza jada papearak, kartelak eta abar biltzen hasia zela. «Liburutegi batek biltzen ez dituen gauzak» ziren jasotako gehienak, galtzeko bidean gera zitekeen materiala.

Geroago, Gaintzak bere lanean erretiroa hartu zuenean, lagun talde bat sortu zuen. Deustuko Ikastolaren sorreraren garaitik eta folklore taldeetan zituen ezagunen artean aurkitu zituen proiektuan laguntzeko gogoz arituko ziren kideak. Egun, Labayru Fundazioak Derioko egoitzan duen dokumentazio gunean aurkitu dute lan egiteko toki aproposa, ez edonolakoa gainera. Egiten duten lana girotzeko, mamitzeko eta dokumentuak behar bezala katalogatzeko hainbat gelatan banatu dute lana, betiere bertako eta beste artxibategi batzuetako euskal fondoak elikatzen jarraitzeko. Izan ere, Labayruren fondoak hornitzeaz gain, Lazkaoko Beneditarren Fundazioarekin eta Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioarekin ere egiten dute



Euskodok elkarteko bi kide eta Labayru Fundazioko Jon Elorriaga, kartel batzuk ikusten. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



lan. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondare sailarekin ere beste artxibategi eta dokumentazio zentro batzuekin ere aritzen dira elkarlanean.

Nabarmentzen dutenez, Euskodoken lanak 70eko hamarkadaren hasieran jaio zen Labayruren liburutegia «osotu» eta harago joan da, artxibo gune handi bat eratuz. Bertatik bisita astelehen goiz hotz eta euritsu batean egin du GAUR8k. Seminarioaren eraikin zaharraren barruan, baina, giroa epelean, hainbat lagun jo eta su askotariko paperak atontzen aurkitu ditu. Lan giro ederrean ari dira. Jarraian, Jon Elorriaga Labayruko artxibategiko eta liburutegiko arduradunaren eta Gaintza beraren eskutik geltoki asko izango dituen ibilbideari ekin diogu gordetako guztiaren ideia ahalik eta osoena eskuratzeko.

ASKOTARIKO 4.950 TITULU

Apalategien artean mugitzen gara azalpenen artean, eta, noizean behin, ale zahar bat hartzen du esku artean Elorriagak, bitxikeriaren bat nabarmentzeko. Baina ezinezkoa da luzaroan gelditzea, asko dago ikusteko

eta ibilbidea hasi baino ez da egin. Azaltzen duenez, «lehen komentuetan gaiaren arabera ordenatzen ziren gauzak, eta hasierako antolakuntza hori mantendu dugu». Dioenaren arabera, sail bereziak egokitu dituzte bibliografia oparoa biltzen duten arloak bereizteko, Karlismaldiei, 1936ko Gerrari edota abertzaletasunari eskainitakoak kasu.

Ale paregabeak aurki daitezke, historia liburuak gehienak, tartean XVIII. eta XIX. mendeetako Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko urtekariak. Besteak beste, altxorren artean, Batzar Nagusietako XVIII. mendeko aktak, Baionan argitaratutako 1828ko Testamentu Berria, Bilbon inprimatutako errege zedulak... ikusi ditugu bertatik bertara.

Beste gela batean egunkariak, aldizkariak, urtekariak... dituzte, guztira askotariko 4.950 titulu. Harribitxien artean “Zeruko Argia”, “Euzko Deya” edota “Ariel” aipatzen ditu Elorriagak, baina beste asko daude eta ezin aipatu guztiak. Bitxikerien artean, “Vertical” Donostian argitaratzen zen aldizkaria aipatu di-

Euskodok taldeko kideak
Labayru Fundazioaren Derioko
egoitzan, lanegun batean.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

gu, baita “Argia”-ren lehen aro osoa ere gordeta dutela.

Egunkarien atalean, Euskodok elkarteko beste lagun batzuk ari dira enkuadernazio lanetan buru-belarri. «Enkuadernatzen dugun egunkari bakarra ‘Berria’ da, euskara hutsez delako. Baina kontsultarako badaude ‘Egin’, GARA, ‘Deia’, ‘Noticiario Bilbaino’, ‘Hiero’, ‘Pensamiento Navarro’... ere». Tartean, Euskal Herriari argitaratutako gehigarri guztiak ere jartzen dituzte kontsultagai, Zazpika eta GAUR8 barne.


Beste gela batean, Kepa Zubiaur eta Jose Mari Etxebarria *Etxeba* Euskadiko Ezkerra alderdiaren kartel batzuk antolatzen

ari dira. Puntu honetara helduta, Gaintzak gogora ekarri du planoak gordetzeko armairuak behar dituztela eta eskaera Euskodoken webgunean bertan eskegi dutela. «Planero oso bat dugu dokumentuen argazkiekin, 7.000 kartel inguru», kontatu du Gaintzak. «Patxi Santiagok eskaneatu eta hodeira igotzen ditu». Une horretan, eskuetan du Felix Irazumaren heriotza salatzen duen kartela. Kalkulatzen dute badituztela 80.000 kartel inguru, baina askok pila-tuta jarraitzen dute era antolatu batean non gorde ez dutelako.

Ibilbidea amaitu da eta guzti hau zelan sortu zen azaltzeko unea da. «Aita Juan Jose Agirre-ekin hasi nintzen 1977an, Lazkaon, eta handik urte pare batera Labayrutik agertu nintzen buletin batzuk hartzera. Orduan Ander Manterolak zera esan zidan: ‘Gipuzkoarrentzako jasotzen ari zara eta Bizkaian ez dugu ezer utziko?’. Handik aurrera ale bat eskatu beharrean bi eskatzen hasi nintzen, ale bat Lazkaorako eta beste bat Bizkaian uzteko. Kutxak hona ekartzen hasi ginen, baina gauzak antolatzeko ez zegoen jende askorik;

Agiriak jasotzeko egindako joan-etorrietako anekdota ugari dituzte, besteak beste autoa paperez goraino eramanean eta aurrean polizia kontrolak aurkitu izan dituzten egunetakoak!

«Historiagileek agiriok erabili izan dituzte liburu mardulak eta tesiak idazteko. Paperok diotena ez da beti erabat egiaztagarria, baina gutxienez gertatzen zenaren oroigarri bada»



jubilatu ginenean hasi ginen gaur dagoena muntatzen», konstatu du Gaintzak.

Egindako lan guztiari duen garrantzia eman nahi dio Manterolak. Nabarmentzen duenez, azken 35 urteetan lan itzela egin da. «Jasotakoak banaka ez du ezer balio, baina, bildumak egiten direnean, guztia gai eta dataren arabera sailkatzean, dokumentazio gun bat sortzen da. Hain zuzen, hori izan zen egin genuen lehen gauza: lana antolatu eta eginbeharrak banatu».

Gogoratzen dutenez, batzuk kartel handiekin hasi ziren, beste batzuk txikiagoekin, hurrengoak herrietako aldizkariekin... Gutxika-gutxika nolabaiteko lan-kate bat osatzen hasi ziren dokumentuak era antolatuan gordetzeko. Adibidez, aldizkariak argitaratzailearen arabera banatuz: udalak, elkarteak, folklore taldeak... Kontuan hartu behar da 5.000 aldizkari inguru zituztela hasiera batean esku artean eta jada katalogatuta dituztela. Lan itzela, zinez. Kartelak sailkatzeko orduan, berriz, bakoitzaren argazkia egin eta fitxa bat betetzen dute, gaia, tamaina, data eta abar jasotzeko.

Lerroon gainean, egunkarien artxiboan aspaldiko ale bat erakusten, eta, eskuin aldean, Luis Angel Gaintza aldizkarien eta formatu txikiko dokumentuen artxibategian.

Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

Azaltzen dutenez, hainbat dokumentutan zaila da data zehatz bat ipintzea. Kartelek askotan ez dute urterik eta hori zehaztea bera ere lan mardula da sarri. Batzuetan diseinuaren, letren estiloaren edo erabilitako hitzen arabera artxibatzen dituzte. Gogora ekarri dituzte EMK Euskadiko Mugimendu Komunistak ateratako kartelak, berritzaileak, apurtzaileak, mezu argi eta zorrotzekoak baitziren. Manterolaren iritziz, kartel batek «inpaktatu» egin behar du eta EMK alderdikoek hori lortzen zuten.

LEKUKOA NORK HARTUKO DUEN KEZKA

Astean behin, astelehen goizetan geratzen dira betebeharrak egiteko. Egindako lana ikaragarria da eta oraindik asko egiteko dagoela jakin badakite. Onartzen dutenez, kezkatuta daude orain arte egindako lanaren lekukoa hartuko duenik izango ote den ez baitute argi. «Lortu da egitura bat eratzea, lan plan zehatz baten arabera ordena bat jarraitzea, eta lan hori ezin da diruarekin ordaindu, zorte handia daukagu», aitortu du Manterolak. Beste kontu bat ere aipatu

du, gustura egiten den lana dela, aldi berean ikasi egiten delako eta batez ere etorkizunari begira garrantzi handia duen betebeharrak egiten ari diren inpresioa dutelako elkarteko kideek.

Hainbeste dokumentu nondik ateratzen dituzten galdetzea ezinbestekoa da. Pista gehiegirik eman gabe, urte luzez egindako lanaren ordaina dela erantzun dute, harreman asko sortu baitituzte ibilbide luze horretan. «Udal, alderdi politiko, sindikatu, tabernetara... jo izan dugu; material asko eta oso ezberdina jaso dugu. Han eta hemen ezagutzen gaituzte», onartu du Gaintzak. «Kultura arloko 'Emausko Trapuketariak' gara gu!», gaineratu du Manterolak. Barre artean, biltzeagatik elizetako orriak ere hartzen dituztela aipatu du, eta, horren harira, Elorriagak gogoratu du Mungian sukalkiaren jaiotze datarekin zalantzan zeudela, eta bildutako dokumentu horien arabera jakin ahal izan zutela zein izan zen lehen edizioa.

Askotan material bila joateko deiak jasotzen dituzte. Manterolak dioenez, «egun jendeak ez du etxeetan traste asko gorde nahi, eta urteetan egindako bilduma-

ren bat jasotzeko, gurasoek utzitakoa eramateko... deiak jasotzen ditugu». Komentatzen dutenez, dohaintza egiten duena pozik geratzen da jakinda esku onean uzten duela gorde duten hori, eta, gainera, erabilera izango duela etorkizunean.

Olentzerori gutuna idatzi beharko baliote, finantziario finkoa eta materiala gordetzeko lokalak eskatuko lituzkete, baina horren aurretik materiala gordetzearen kontzientzia zabaltzearen garrantzia nabarmentzen dute. «Ez da ezer bota behar; gorde, artxibatu eta urtea jarri», dei egiten du Gaintzak.

Komentatzen dugu egun ikas-tetxeetan ez dagoela ohiturarik artxibategiak bisitatzeke, eta altxorrez betetako gunek badutela zer erakutsi, bai metodologia-rik ikuspuntutik bai historia kontatzen duten perlak erakusteari dagokionez. Manterolak nabarmendu duenez, beste herri batzuetan dena gordetzen dute, lantegietako artxiboak eta guzti, baina Euskal Herrian dedikazio eta mimo hori falta dira. «Pena da, gizarte baterako oso garrantzitsua da-eta artxibo batzuk ez galtzea», amaitu du.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasiko kidea

Eleaniztasuna: zientzia ala politika?

Zergatik ote da Euskal Herrian hizkuntzak ikasi eta irakasteko gaia beti zail, korapilotsu eta gatazkatsu bezala aurkezten dela... eta, zer esanik ez, euskara tartean denean. Edo tartean izatea nahi ez denean esan beharko genuke, igual, gatazkaren muina hobeto ulertzeko. European aspaldi ikusi zuten eskolako erronka nagusienetako bat ikasle eleantiztasunak prestatzea zela, eta horretarako elebarkatasuna eta elebitasuna alde batera utzi behar zirela.

Hala, Europako Kontseiluak "Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Markoa: Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluazioa" dokumentua aurkeztu zuen 2001ean. Dokumentuan zehatz-mehatz aurkezten dira hizkuntzetan ikasleak ahoz eta idatziz dituen ulermen eta adierazmen maila neurtzeko tresnak. Orduetik, hizkuntzaren batean zein maila duzun zehazteko A1, A2, B1, B2, C1 edo C2 mailak erabil ditzakezu.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako heziguneak izango dira euskararekiko egoera hoberenean daudenak. Han, gutxienez, legeak esaten du ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzean bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, ongi menderatu behar dituztela, eta atzerriko hizkuntza bat edo bi. Bestalde, hamarkadak dira A, B eta D ereduak ezarrita daudela. Hala ere, ikasle askok jarraitzen dute eskolatik ateratzen euskaldundu gabe edo gutxi euskaldunduta.

Zer da, bada, hizkuntza bat ongi menderatzea? Nola neur liteke hori? Harrigarria da oraindik, Europako Kontseiluak dokumentua aurkeztu eta hamabost urtera, hezkuntzaz arduratzen den inongo administrazioek ez finkatu nahi izatea zein den hizkuntza bakoitzerako ikasleek lortu behar duten maila. Noiz eta gure gazte askok Europara jo behar duten beren prestakuntza osatzera edo lanera; noiz eta hizkuntza eskakizunak inoizko handienak diren.

Izango du arrazoiaren bat administrazioek euskararekiko eta, bide batez, beste hizkuntzekiko duten jokaera horrek. Susma daiteke arrazoi horiek gutxi dutela ikusteko soziolinguistikarekin, psikolinguistikarekin, glotodidaktikarekin edo pedago-

giarekin berarekin. Izango da, akaso, irizpide soziopolitikoek gain hartzen dutela, gehienez, hizkuntzak ikasi, irakatsi eta ebaluatzeak gai horretan.

Azken "gatazka linguistikoa" Nafarroatik etorri zaigu. Han, hautsak harrotu ditu Nafarroako Gobernuak, azkenik, hezitzaileak kontratatzeak onartu duen lan eskaintza publikoak. Aurreikusita zeuden euskarazko 120 postu kendu ditu, eta 200 postu eskainiko ditu: 108 euskaraz eta 92 gaztelaniaz.

Langileen eskubideei begira egin dezakegu irakurketa. Edo ikuspegi soziolinguistikoa eta soziopolitiko batetik egin dezakegu. Jar gaitezen gaztelaniaz eskainiko diren 92 postuei begira. Euskaraz ez dakiten 92 langile berri kide tuko dituzte sisteman: zertarako, baina? Ibilbide profesional luzea gertatzen zaien langileak dira, eta urte horietan heziguneak euskaraz bizitzea zailduko dute, adibidez. Hori konpentsatzeko ekimenak asmatu beharko dira, inbertsioak egin noizbait langile horiek euskalduntzeko, eta abar. Ez al da errazagoa, merkeagoa eta logikoagoa sisteman gutxienez euskara eta gaztelania menderatzen duten langileak sartzeko, elebidunak direnak, ale-

gia? Heziguneko hizkuntza proiektuak eskatzen duenean euskaraz egingo dute eta hala eskatzen duenean gaztelaniaz egingo dute. Noizbait hartu beharko da erabaki hori, baliabideak optimizatu nahi badira, bederen.

Eskubideen arteko talka dago, noski. Langileen eskubideen eta ikasleen hizkuntza eskubideen artekoa, behintzat. Etxekoek eskola-hizkuntza erabakitzeko eskubidea ere egon liteke tartean. Talka horretan, ordea, noren eskubideak lehenetsi behar dira? Ebazpen horrek badu ikuspegi politikoa, klaro. Hor zegok koska!

Eztabaida maila horretara ekarrita, hau da, maila politikora, behingoz hizkuntza-gatazka horretatik atera nahi badugu, eta benetan euskararen berreskurapen eta normalizazio bidean urrats irmoak eman, gure jarrera ere argitu beharko dugu: euskarak ezin du jarraitu soilik eskolako edo euskalgintzako helburua izaten, helburu nazionala izan behar du, ezinbestez: eskolan eta eskolaz kanpo. •



Euskarak helburu nazionala izan behar du, eskolan eta eskolatik kanpo. URIZ | A.PRESS

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Korruptzioaren aitzindariak

Espainiako gertuko historiaren DNAn korruptzioa barneratuta dagoela esateko azken hamarkadetako hemeroteka gainetik irakurtzea nahikoa litzateke. Izaera, diote batzuek, gizarte oso baten gaitz endemikoa, beste batzuek. Korruptzioa modu askotan defini daiteke; Transparency International erakundearen arabera «botere publikoaren erabilpena zilegi ez diren onurak lortzeko» egiten denean korruptzioa ematen da; Robert Klitgaard pentsalari estatubatuarraren arabera, berriz, «korruptzioa existitzen da pertsona batek, modu bidegabean, bere interes pertsonalak besteen interesen gainetik jartzen dituenean». Pertsonalki, lehenengoak kezkatzen nau batez ere.

Publikoaren hutsaltzearen analisisian indarra jarritz gero, Espainiako historia korruptzioz beteta dagoela esan dezakegu. Horretan Austriako Etxekoak izan ziren maisuak. Izan ere, XVI. mendean, Habsburgoen monarkia jaioberriak bere kutxa hornitzeko laster jarri zuen martxan mesedeak saltzeko ohitura nobleziako kideen artean. Jokabide horren adierazgarriarik onena Francisco Gomez de Sandoval y Rojas, Lermako I. dukea, izan zen. Felipe III.aren erregealdian dukeak eskuratu zuen boterea ia absolutua izan zen. Klitgaarden korruptzioaren deskribapena jarraituz, Lermako dukeak bere interes pertsonal eta ekonomikoen arabera hartzen zituen estatu mailako erabakiak. Bere erabakien artean, Espainiako hiriburutza Madrildik Valladolidera pasatzea Pisuegako hirian ehunka etxe erosi ondoren. Beraz, Madrilgo noblezia Valladolidera iritsi zenean dukearen esku zeuden hiriko eraikin gehienak. Espekulazio urbanistikoaren lehen maisuaren aurrean gaude.

Dirutza egin zuen Lermak eta, ase ez zegoenez, jokaldia errepikatu zuen; nobleziak Madrilén utzitako etxeak merke erosi zituen eta berriro ere hiriburutza Madrilera eraman zuen. Nobleziak, nazkatuta, bere kontrako auzia jarri zuen martxan eta, berriro ere, Lerma aurrerakoia izan zela esan dezakegu. Forupeko figuraren aurrekaria asmatu zuen; justizia zibiletik ihes egiteko kardinalaren izendapena lortu zuen, eta, horrekin, Elizaren babesa. Mario Conde, Javier de la Rosa,

Luis Roldan, Granados, Rato, Barcenasen edo Urdangarinen aitzindari ona.

Iturriak arakatuz eta historialarien lanak irakurriz korruptzioa garai historiko guztietan eta lurralde guztietan aurki dezakegula zin dagizuet. Erraza da nire ustez esatea Espainiako izaeran datzala, edo beraien nortasunaren arazo bat dela. Horrek arazotik aldentzen gaitu, lasai uzten gaitu. Kontua da azken urteotan gertu ikusi dugula korruptzioaren funtzionamendua nolakoa den: Nafarroako Kutxa, dietak, eta abar. Baten batek esanen luke kanpotik inportatutako ohitura berria dela, azken urteotako kontua. Tamalez herri honetan baditugu ere gure aitzindariak. Jacques de Licras frantses jatorriko abokatua Nafarroako prokuradorea izan zen 1340tik 1345era bitartean eta botere handia eskuratu zuen erresumen. Erregearen konfiantza osoa izan zuen arren, bere gehiegikeriekin nekatuta Nafarroako herri ezberdinetan

Lermako dukeak Espainiako hiriburutza Madrildik Valladolidera pasatu zuen, bertan ehunka etxe erosi ondoren. Madrilgo noblezia Valladolidera iristean, dukearen esku zeuden hiriko eraikin gehienak

tik hamar salaketa publiko iritsi ziren Erregearen auzitegiara. Karguen artean, sobornatzea, mesede erosketa, testigantza faltsuak ematea edo fabore sexualak jasotzea. Laburbilduz, jarrera anker eta krudelak leporatzen zizkioten. Baina Licrasek azken boladan bankariak jasotzen ari diren bi urteko kartzela zigorra baino zertxobait gehiago jaso zuen; heriotza zigorra, hain zuzen ere.

Zein da beraz arazoa? Herrialde baten izaera? Gutxi bartzuen jokabide zikina? Edota mendeetan zehar inposatu den eredu soziopolitiko oso baten gaixotasunaren seinale da? Marxek esaten zuen produkzioaren oinarrian bertan kokatu behar dugula korruptzioaren sorrera. Jabetzaren sentimendua horren indartsua den gizarte honetan, etekin ekonomikoa lortzea helburu nagusi edo ia bakarra bihurtu den gizarte honetan, interes publikoarentzat lekurik ez dagoela dirudi. •

«Independentziak prezio batzuk ditu; euskalduna ‘desagertzea’, horietako bat»

Astez aste ari gara txoko honetan “Independentzia helburu” liburuak barnebiltzen dituen edukiak xehatzen. Euskal askapen mugimenduaren inguruan hitz egin zuen aurrena Andoni Olariagak, abertzaletasunetik independentismora urratsa emateko gonbita luzatu zuen ondoren Unai Apaolazak, eta antzeko bidetik garmatza ale honetako protagonistak ere: Imanol Galfarsoro (Aretxabaleta, 1960).

“Estatu gabeko naziotik, naziorik gabeko estatura” goiburuarekin bataiatu du liburuko bere saiakera. Hiru ataletan bantzen du saiakera Galfarsorok: euskaltzaletasuna definitzeko modu “kulturalistari” egiten dio aurrenez kritika, Nafarroako Erresumaren aldeko “prediku historizistari” egiten dio bigarrenik azpimarra eta independentziaren aldeko “sakralizazio prepolitikoaz” ohartarazten gaitu azkenik.

Independentziaren inguruko saiakera bat, zergatik kultura, historia eta politika bezalako hiru arlotan banatu?

Batetik, saioa ordenatzeko eta egituratzeko banaketa egokia iruditu zitzaidan, eta, bestetik, nire idazlanetan oro har jorratzen diren gaiak dira kultura, historia eta politika, betiere kultur ikasketa eta giza zientzietatik abiatuta. Bestalde, eta historia-zalea ez izanik ere, gustuko dut historizismoaren akatsak azalaraztea, hori baita teoria kritikoaren egin beharretako bat. Saiakeraren antolaketa horren bidez saiatzen naiz egoeraren panoramika orokor bat ematen; horretarako, Euskal Herrian aurreikusten dudan estatu europarraren nire ideia orokorra eskaintzen dut, erabat espekulatiboa dena. Baina ororen gainetik uste dut intelektual publiko baten eginbeharra dela eztabai-

IMANOL GOLFARSORO

IRAKASLEA ETA IKERTZAILEA

«Subordinazioaren kontra» liburuaren idazlea da Imanol Galfarsoro (Aretxabaleta, 1960). Era berean, «IJZS» aldizkariaren editore orokorra eta Lapiko Kritikoa atariaren sustatzailea da.

Aimar Etxeberria Korta

da publikoan parte hartu eta arazoak sortzea, inertziak astintzea. Eta uste dut saiakera honekin lortu dudala; hala adierazten dute liburuaren argitalpenaren ondotik sortu diren hainbat erreakziok.

Zorrotz diozu: «Independentismo historizista estuak eta euskal kultura ez-politikoak independentzia, hurbildu baino, urrundu egiten dute». Zergatik?

Independentismo historizistaren inguruan uste dut liburuan ekarpena egin dugun laurok iritzi antzekoa dugula; agian hobekien Andoni Olariagak islatzen du, esaten duenean behin lapurtu eta ondoren jan zuten ogitar-teko hori berriz ere berreskuratzerik ez dagoela. Hori hala, Nafarroako Erresuma berreskuratzearen aldeko aldarrikapena ibilbide politiko motzeko posizioa iruditzen zait. Ez nabil esaten historia ez denik beste alor bat borroka intelektual eta ideologikorako; bestela ohartzea besterik ez dago eskuin kontserbadoreak “Nafarroa” hitzaren esanahia bere parametro ideologiko espainiazalean finkatzeko erabiltzen dituen grina eta baliabideak. Esaten nabilena da, gaur egun, modernitate aurreko Nafarroako Erresuma galduaren eredu eta egitura instituzionala estatu independente europar garaikide baten “benetako” aurrekari politiko gisa aldarrikatzek oso indar sinboliko eskasa duela. Beste modu batera esanda, posizio horrek (foralismoa, nazio forala eta antzekoak barne) ezer gutxi eransten dio gure imajinario politiko orokorraren dimentsio garaikide, aurrerakoi eta demokratikoari. Historiaren zentzua, zer esanik ez, borrokatu egin behar da eremu intelektualean eta akademikoan. Azterketa –eta hausnarketa– espazio hori ezin da hutsik utzi, baina uste dut badaudela beste modu batzuk gure historiaz modu eraginkorrako eta, batez ere, atseginago batean baliatzeko. Zentzu horretan, irribarre konplizea atara zitzaidan Joseba Sarriondiak adierazi zuenean oinaztar eta ganboatarren afera euskal zi-

nemarentzako gai aproposa zela; liburuan nik ere esaten dut modernitate aurreko euskal ondare mitikoak film, telesail eta turistentzat zelai-antzerkiak egiteko balio duela, ez borondateen metaketan oinarritu behar den etorkizunaren ildo politikoa modu nostalgikoan baldintzatzeko edo marrazteko. Laburtuz, Nafarroaren iraganeko izaerari buruz ematen den eztabaida, modu berean, etorkizunaren inguruko ere bada. Testuinguru horretan ez dago iraganari buruzko eztabaida ekiditerik. Kontua da iraganeko Nafarroako Erresumaren aldarrikapenak etorkizuneko independentziaren aldeko proiektuari ez diola balio erantsi handirik eskaintzen; are gutxiago bere horretan, besterik ez balego bezala, aurkezten denean.


Bestalde, eta kultura ez-politikoari dagokionez, arazoak ditut euskalduntasunaren inguruko “tribulazio” primordialistekin (hizkuntza berezitasunaren goraipamenean oinarritzen direnak), oraindik dominanteak direlako euskal munduko hainbat zirkulu intelektualetan. Berriki Gorka Bereziartuak kritika bat luzatu du nire planteamendua estatikoa dela adieraziz. Egia da adibidetzat hartzen dudan momentu hipotetiko horretan ez dagoela prozesurik; azken finean proposatzen dudan ariketa guztia “*what if*” izateaz gain “*as if*” pentsatzeko gonbidapena da. Egia den bezala momentu hipotetiko hori “ezinezkoa” dela etorkizunean, Joseba Gabilondok argitzen duen bezala nire proposamenean garatzen diren “normaltasun” eta “unibertsaltasun”-aren aldeko (i)deiak Mendebaldeko estatu handien pribilegioa izan direlako soilik. Eskema horretan euskaldunok beti izan-go gara “barbaro”.

Hain zuzen hor ikusten dut arazo nagusia. Gure partikular-tasunaren desira politikoak berezitasunaren diskurtsoan oinarritzen jarraitu behar dugu? Eta, zentzu horretan, indar zein jarra atzerakoiei utzi behar diegu unibertsaltasunaren diskurtsoaz jabetzeko eta gozatzeko monopolioa? Hor botatzen dut nire desafioa: iruditzen zait indepen-

dentziaren aldeko mugimenduan bertan euskal berezitasunaren diskurtsoak larregiko pisua duela gaur-gaurkoz, eta, ondorioz, zama izugarria bihurtzen dela independentziaren bidean diskurtso demokratikoaren unibertsaltasuna garatzeko.

«Herri euskalduna» terminoari ere egiten diozu azpimarra. Termino ahula dela diozu. Zergatik?

Batetik, “herri euskalduna” ezin delako mugimendu politiko gisa antolatu; “herri euskalduna” mugimendu politiko eta abar askotan zatikatuta dago. Bestetik, Joxe Manuel Odriozolak kategoria hori aurkeztean “herri euskalduna” bere horretan antzematen duelako eta ez duelako beste ezerekin artikulatzen. Odriozolaren etnozidioaren teoriak akats bat du: etnizitatearen osagai bakarra hizkuntza da; hizkuntza hiltzean, beraz, herria ere hiltzen da. Noski, teoria horren oinarrian Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzen arteko dominazio/subordinazio harremanak daude. Baina iruditzen zait Odriozolaren azterketa kolonialismoaren aurkako borroka-
ren erretorika klasikoan oinarritzen dela soilik, guztia “kolono vs kolonizatu” binomioaren pean kokatuz. Talka horretatik sortzen diren emaitzak globalizazioaren kultura transnazionalaren testuinguruan kokatu behar dira, oraintxe gutxi arte hainbeste aipatzen ziren modernitate likidoak eta mestizajearen kulturak barne. Horrek ez du esan nahi testuinguru berriak kultura gutxituen eta nagusien arteko dominazio/subordinazio harremanak gainditu egin dituenik, baina ezin da ukatu harreman horiek konplikatu egin direnik. Hori hizkuntzen arteko harremanen alor zehatzera eramanez, horregatik diot euskarduna naizela, baina harrotasunik gabe, eta berdin diot lotsarik gabe, Euskal Herrian hitz egiten diren beste hizkuntzak ere nireak direla. Adierazpen horrek ez ditu ukatzen hizkuntzen arteko botere harremanak, are gutxiago ditu hala nolako kultura aniztasunaren diskurtso epelak be-



Argazkiak: GAUR8

«Independentziaren aldeko mugimenduan larregiko pisua dauka euskal berezitasunaren aldeko diskurtsoak; zama bilakatzen da diskurtso demokratikoaren unibertsaltasuna garatzeko»



sarkatzen. Bakarrik adierazten du borroka hori artikulatzeko “gu kolonizatuak vs zuek kolonizatuak” oposizioa oso motz geratzen dela. Borroka hori, izan ere, norberaren identitatearen barruan ematen baita halaber, eta horregatik kentzen ditut harrotasuna eta lotsa “euskal fauna/euskaraduna” izatearen ekuaziotik.

«Tribugintza»-tik «estatugintza»-ra igarotzeko urratsa proposatzen duzu. Zertan oinarrituko litzateke, bada, aldaketa hori? Hori litzateke «euskalduna» desagertzea?

“Estatugintza ez da tribugintza” leloa arestiko kritika postkolonialaren testuinguruan kokatzen da. Behin kritika hori egin da, Europaren legatu erradikala, askatzailea eta eraldatzailea berreskuratzea proposatzen dut. Horregatik diot ezberdintasun kulturala azpimarratzetik berdintasun politikoa aldarrikatze-

ra igaro behar dugula. Bestela esanda: independentzia lortzeko diskurtso demokratikoaren unibertsaltasuna behar-beharrezkoa da.

“Euskaldunak desagertu egin behar du” adierazpena, berriz, estatugintzaren zereginarekin dago lotuta. Estatu garaikidearen zeregina hiritarren segurtasuna eta ongizatea garatzea da. Euskal Herrian estatu independente baten jabetzarekin batera, orain arte kulturalki (edota etnikoki) definitu izan den euskalduna *de facto* desagertzen da. Zentzu horretan diot etorkizuneko Euskal Herriko estatuan identitate kulturala zehaztu gabe garatu beharko litzatekeela. Estatuaz ari naiz, ez gizarteaz edo merkatuaz. Estatu baliagarria izango da soilik arraza, erlijio edo kulturazko identitate osagaiekin betetzen ez bada; hots, aldarrikatzen dugun estatuaren azken asmoa denontzat babestuta dagoen berdintasun politikoa izan beha-

rrean herri edo nazio bakar baten diferentzia kulturala babestea baldin bada, desastrerako errezeta emanda dago. Bestela esanda: diferentzia kulturean zilegitutako estatua irudikatzeak “tribugintzatik” du gehiago “estatugintzatik” baino.

Eta euskalduna «desagertze» hori, nola egiten da?

Hori nola egiten den baino, gehiago interesatzen zait hori gertatzearen ondorioei erreparatzea. Britainia Handiko adibidea erabiliko dut azalpena emateko. Britainia Handian ez dago ingelesik, Britainia Handiko kultura aniztasunaren kasuan ez dago “gutxiengo etniko” anglosaxoi edo ingelesik afrikar-karibetarrerekin; musulmanekin; gay, lesbiana eta transexualekin; edo eskoziar, galestar eta irlandarrekin lehian britainiarra nor den erabakitzeke. Aldiz, “ingelestasun-
an” ezkututzen den partikularrak berak betetzen du funtzio

hegemonikoa, britainiar instituzio “neutralen” bitartez (Estatua, BBC bezalako komunikabideak, *establishment* kulturala...). Bestela esanda, ekuazio britainiarren substratu edo dimentsio “etniko” anglosaxoi partikularra “desagertuta” dago eta zeinu politiko “ez-markatu” bezala funtzionatzen du: adierazle hutsa da, “diferentzia” (etnizitatea) neurtzeko norma edo unibertsaltasunaren lekune hutsa, zeina “ingeletasunaren” eduki partikular betiere “ez-markatuak” bete edo okupatzen dituen. Modu horretan, unibertsaltasunaren posizio “hutsa” eduki partikular batez beteta dago (ingeletasuna), baina ez modu esplizituan.

Egia da azaldu berri dudan egoerak iraganeko egoera bat gehiago deskribatzen duela gaurkoa baino. Izan ere, “identitate ingelesa” bermatzeko deiak eta aldarrikapenak nagusitzen ari dira egun, nola barne (Eskozia) hala kanpo (migralaria) mehatxutzat hartzen diren elementuen eraginez. Dena dela, uste dut emandako adibidea adierazgarria dela. Alde batetik, mehatxuak berarekin erresistentzia eta afirmazioa dakarrela erakusten du, eta, bestetik, nire galdera errazten du: zer nahi dugu, betiko singularitasun subordinatua ala imajina dezakegu esan gabe doan identitate “ez-aitortu” batean desagertzeko aukera?

Hori al litzateke aipatzen dituzun independentziaren prezio edo galaratako bat?

Zer esanik ez, euskalduna “desagertu” beharraz ari naizenean probokazio moduko bat ere bada. Baina bai, pentsatu nahi dut arestian azaldutakoarekin hobeto ulertuko dela euskaldunak “desagertu” egin behar duela esatean aditzera eman nahi dudana. “Desagertzeak” esan nahi du identitate subordinatua izateari utzi eta zertan azpimarratu beharrik ez dagoen identitate baten jabe izatera heltzea. Bestela esanda, estatua lortzearekin euskalduna “desagertu” egiten da eta Euskal Herria izena hartuko duen munduko zati honetan



estatuak demokraziaren kudeaketa suspertuko du; kudeaketa justuago bat eginez, hain zuzen ere, askatasunean, justizian eta berdintasunean oinarritua egongo dena.

Independentziak, baina, baditu beste prezio batzuk ere, azkena militantea. Zergatik zaizu interresgarria aipatu prezioen inguruan ohartaraztea?

Garrantzitsua zait independentziaren truke ordaindu behar den prezioaz hitz egitea. Adibidez, estatuak aurrez aipatu partikular guztiak bideratu eta bermatu beharko ditu, noski, baina askoz ere joera utopiko gutxiagoko beste funtzio batzuk ere bete beharko ditu. Dena den, Jon Jimenez editorea eskertu beharko duzue gai

horretaz ez naizelako gehiago luzatu. Independentziaren aldeko militanteek ordaindu behar duten azken prezioa asmatzea oso erraza da. Eduardo Apodakak “Identitate eta Anomalia” liburuan azaltzen duenez, bi joera daude subjektibitate politikoak antzemateko: konstruktibismoa (identitatea eraiki egiten da) eta primordialismoa (identitatea da eta kito). Ikusi ditugu zeintzuk diren primordialismoaren akats nagusiak, baina, ikusi dugu, era berean, konstruktibismoak ez dituela galdera guztien erantzunak. Dena dela, iruditzen zait independentziaren subjektua independentziaren prozesua garatuz joan ahala eraikitzen den heinean, independentziaren lorpenak berak ematen duela adi-

«Ezberdintasun kulturala azpimarratzetik berdintasun politikoa aldarrikatzera igaro behar dugu; independentzia lortzeko diskurtso demokratikoaren unibertsaltasuna beharrezkoa da»

«Aldarrikatzen dugun estatuaren azken asmoa denontzat babestua dagoen berdintasun politikoa izan beharrean nazio bakar baten diferentzia kulturala babestea bada, emanda dago desastrerako errezeta»

tzera subjektu politiko horren amaiera. Hori da ordaindu behar den azken prezioa, ez besterik; independentziak subjektu independentista hiltzen du. Eta hala izan bedi.

Independentzia, zertarako, beraz?

Erantzuna Ane Larrinagak “Berria” egunkarian “Euskal Estatuaz” izenarekin idatzitako iritzi zutabeak ematen digu, batez ere azken paragrafoan esaten dituenekin. Larrinagak EHUKo Parte Hartuz ikerkuntza taldeak (Ipar Hegoa Fundazioaren laguntzarekin) Euskal Estatuari buruz eginko ikerketa baten emaitzak eskaintzen dizkigu. Estatua lurralde jakin batean eraikitzen den egitura politikoa dela esaten

digu, eta, horrela izatean, inkestan parte hartu dutenek estatu berri baten zergatia, zure “zertarako” hori, herritarren helburuak eta itxaropenak asetzeko dela diote. Azterketak, bestalde –eta lurraldez lurralde aldaketak badi-tu ere– independentziaren alde edo kontra egotea –gaur arte nahiko iritzi finkoa izan dena– gero eta aldakorragoa dela erakusten du.

Eta honakoa da gehien harritu ninduen. Hitzez hitz errepikatuko ditut Larrinagak esan zituenak: «Euskal Estatuaren kontrako jarrera erakutsi duten inkestatuak prest leudeke aldatzeko, eta, beraz, Euskal Estatuari baietza emateko, gaur egun Espainian edo Frantzian eskaintzen direnak baino gizarte politika hobeak edo demokrazia gehiago ziurtatuko balira. Hala dio ezetza eman duen ia erdiak. Neurri txikiagoan, beste herritar multzo handi bat ere –%40– gertu dago aldatzeko, oraingoa baino egoera ekonomiko hobeak edo Europar Batasunaren barruan jarraituko dela ziurtatuko balitz. Alderantzizko norabidean, Euskal Estatuaren aldeko botoa eman duen jendea prest legoke iritziz kanbiatzeko eta Euskal Estatuari ezetza emateko, batez ere, euskararen alde nahikoa ez dela egin pentsatuko balu. Aldeko aukera egin dutenen bi here-nak horixe diote. Neurri apalagoan, estatu berriak ez balitu ziurtatuko gizarte politika eraginkorragoak, Europar Batasunaren barruan jarraitzea eta egoera ekonomikoa hobetzea, %30-40 inguruk aldatuko luke botoa ezetzera». Euskaldungoaren estatu independentearekiko mesfidantza orokorrak zer pentsatua ematen du. Baina, oro har, inkestaren emaitzak aipagarriak dira, “Independentzia helburu” liburuaren zenbait intuizio orokor baieztatzeaz gain independentzia “zertarako” horren erantzun zehatzak ematen dizkigulako: Europaren baitan estatu independente bilakatzeko demokrazian sakondu eta orain dagoena baino ongizate hobeak eta gizarte politika eraginkorragoak garatzeko gauza garela frogatu beharko dugu.

INFO



IRRATIA

ENTZUTEKOA DA KONTATZEKO GAUDE

10
URTE

DONOSTIA 99,2
TOLOSALDEA 97,7
GOIERRI 106,7
BERGARA 100,2

ARRASATE 106,1
UROLA 107,7
KOSTA 107,1
BILBO 102,3

DURANGALDEA 100,7
OTXANDIO 90,4
IRUÑERRIA 106,7
GASTEIZ-LAUTADA 103,8

INFO



IRRATIA

GAZTETXE TOPAKETAK

Asanblearismoa eta alternatibak, gaztetxe eta gazte asanbladek bidea egiten jarrai dezaten

 **JENDARTEA** / Aimar Etxeberria Korta

250 gazte asanblearismoaz eta alternatibez hitz egiten. Hori da Oñatiko Antixena gaztetxean iragan asteburuan ospatu ziren gaztetxe eta gazte asanbladen arteko topaketek utzitako irudia. Eztabaidek, baina, helburu jakin bat zuten: etorkizuneko bidea jorratzen jarraitzeko gaztetxe eta gazte asanbladak tresnaz hornitzea.

Oñati izan zuten topaleku iragan asteburuan Euskal Herrian zeharreko gaztetxe eta gazte asanbladetako kideek, bertan ospatu baitziren Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen arteko topaketak. Hiru egunez, asanblearismoa eta alternatibak oinarri hartuta hainbat eztabaida, tailer, hitzaldi eta abarrez gozatzeko aukera izan zuten Antixena gaztetxera gerturatu ziren gazteek. Aipatu gaztetxeko kidea da Xabier Etxebarria, eta berarekin hitz egin du GAUR8k topaketon nondik norako nagusien berri izateko.

Azaldu du Etxebarriak gaztetxe eta gazte asanbladen arteko topaketena iaztik datorren kontua dela. Laudion egin ziren iragan urtean, gaztetxe eta gazte asanblada ezberdinen errealitatea jaso asmoz egin nahi zuten dokumental baten harira. «Dokumentalaren grabaketa lanak errazteko, gaztetxe eta asanbladan antolatuta zeuden gazteak Laudion elkartzea erabaki zuten», azaldu du. Urte batzuk ziren jada topaketarik egiten ez zela, eta dozenaka lagunek egin zuten bat bertan. Topaketak, baina, ondorio garbirik gabe amaitu zituzten; ekimenari jarraipena ematea soilik adostu zuten.

Oñatiko gazteak izan ziren, zentzu horretan, zezenari adarretatik heldu ziotenak. Ikasturte berria hastearekin batera, topaketen gaia jarri zuten mahai gainean iragan urtean Laudion izan zirenetako batzuek. «Asan-

bladan planteatu genuen, eta begi onez ikusi zen proposamena. Esan daiteke Oñatiko gaztetxearen iniziatiba izan zela, eta lortu dugu beste urtebetez egitea topaketak», azpimarratu du.

ASANBLEARISMOA ETA ALTERNATIBAK
Behin asanbladan topaketak egitea onartuta, euren erabakia publikoki adieraztea erabaki zuten Antixenako kideek. Erabakiari jarraiki, euren asmoen berri eman eta topaketak elkarlanean antolatzeke deia luzatu zuten, bilera sorta bati ekinez; Durangoko gaztetxeko kideekin bildu ziren, gaztetxe eta gazte asanblada ezberdinetako helbide elektronikoak biltzeari ekin zioten, eskualdeko gaztetxe ezberdinetako kideekin jarri ziren kontaktuan... «Egin genituen kontaktuetan erantzun positiboak jaso genituela ikusita, Durangoko Azokaren harira bilera zabal baterako deia luzatu genuen. Dozena bat gaztetxetako kideak bildu ginen bertan, eta topaketen eduki nagusia izango zena zehaztu genuen. Hala, topaketetako eztabaida nagusiko bi puntu garrantzitsuenak planteatu genituen: asanblearismoa eta alternatibak», azaldu du Etxebarriak.

Bilera batekin nahikoa ez eta bigarren bat egin beharrean suertatu ziren, topaketak egin aurretiko aurre-lan guztiak modu egokian egiteko. Urtarrilaren 9an egin zuten aipatu bigarren bilera, eta 50 pertsonatik gora elkartu ziren bertan. «Bi bilera hauek egin aurretik, baina, Laudioko gaztetxeko kideekin hitz eginak ginen iragan urteko espe-

300 gazte inguru elkartu ziren iragan asteburuan Oñatin. Hitzaldi, tailer, kontzertu eta abarrekin gaztetxe eta gazte asanbladen osasunak modu onean jarraitzen duela erakutsi zuten.
TOPATU.EUS





rientziaren berri izan eta akats berak ez errepikatzeko. Audio-koaren ostean atera zuten ondorio nagusia izan zen gaztetxe edo asanblada bakoitzaren egoeraz hitz egitera mugatu zirela. Hori jakinik, bakoitzaren osasuna aztertzeraino baino gaztetxeok etorkizunera begirako tresnaz janztera bideratutako topaketak egitea erabaki genuen», adierazi du. Aipatu erabakiari erantzunez erabaki zuten topaketak asanblearismoaren eta alternatiben artean banatzea.

Hasierako asmoen baitan kokatzen zen ere erabaki edo lan ildo zehatz batzuk izatea topaketak amaitzean, «baina parte hartze kopuruak eta eztabaiden nondik norakoek ez ziguten halakorik baimendu. Horrek ez du esan nahi –jarraitu du– aurrera begirako erabakirik hartu ez dugunik: topaketek jarraipena izan dezaten bilera deialdi bat egin dago jada, ondorioei heldu eta horiek bideratzeko».

Hasieran adierazi bezala, hiru egun egin zituzten elkarrekin Euskal Herriko hamaika txokotatik Oñatira bertaratu ziren gazteek. Ostiral arratsaldea, batez ere, edukiak jasotzera bide-

ratu zuten, betiere asanblearismoa eta alternatibak oinarri hartuta. Hala, OihuK Bilboko emakume feministek okupatutako guneko eta «Gure kabuz ala hil» dokumentaleko kideak izan zituzten gonbidatu, euren proiektuen berri izan zezaten. Ondoren, Gasteizko gaztetxearen historia jasotzen zuen dokumentala proiektatu zuten, eta eguna kontzertu lasai batzuekin amaitu zuten.

Larunbat goiza, berriz, eztabaidan eman zuten; batzuk asanblearismoaz, besteak alternatibez. Guztiak bildu eta plenario handi bat egin asmo zuten, baina ezinezko egin zitzairen, eztabaidek oso bide ezberdinak hartu zituztelako. Bazkaldu ostean hiru tailer izan zituzten, hirurak aldi berean garatuak; jendeak batean edo bestean banatu behar izan zuen. «Erresistentzia tailer» bezala definitu zituzten, eta, hala, erresistentzia fisikoaz, juridikoaz eta komunikatiboaz aritu ziren. Horretarako Julio Villanuevaren –erresistentzia fisikoa–, Donostiako Okupazio Bulegoaren –juridikoa– eta Lander Arbelaiz kazetariaren –komunikatiboa– ekar-

penak jaso zituzten. Tailerrak amaitzean manifestazioa egin zuten Oñatiko kaleetan, «musikulu apur bat atera eta jendea motibatuzko». Eta musika jaialdi batekin eman zioten amaiera egunari. Igandea, berriz, guztia txukundu eta azken balorazio bat egiteko utzi zuten.

HARREMANAK SARETU

«Orokorrean, jendea oso gustura irten zen topaketetatik. Egin ziren eztabaidek freskotasuna izan zuten; lortu genuen norberaren eguneroko errutinak atera eta beste herrietako errealitateak ezagutzea», nabarmendu du Antixena gaztetxeko kideak. Parte hartzea ere oso altua izan

Kolektibo eta pertsona ezberdinen ekarpenak izan dituzte hitzaldi eta tailer ezberdinetan: «Gure kabuz ala hil», OihuK, Julio Villanueva, Lander Arbelaiz, Donostiako Okupazio Bulegoa...

Gaztetxe eta gazte asanbladen arteko harremanak saretuz emango diote jarraipena topaketo. Bide horretan beste bilera deialdi bat ere egin dute jada: apirilaren 9an, Gasteizen

zela azpimarratu du: «Asteburu osoan zehar 300 pertsonaren bueltan igaroko ziren hemen-dik, eta eztabaidetan 250 bat izango ginen. Topaketak antolatzen hasi ginenean 150 pertsonako parte hartzearen helburua jarri genion geure buruari. Gero, baina, jakin genuen ezker abertzaleak espetxeetara martxak antolatu zituela asteburu berean... Topaketak ‘salbatzea’ nahikoa izango zela pentsatu genuen orduan». Parte hartzea presentziala izateaz gain, aktiboa ere izan zela gaineratu du, «talde txikitan banatzeak asko lagundu zuen horretan».

Aurrera begira jarritz, aurreratu du helburua gaztetxe eta gazte asanbladen arteko harremanak saretzen jarraitzea dela. Bilera deialdi bat ere egin dute jada: apirilaren 9an, Gasteizen. Helburua Euskal Herrian zeharreko eskualde guztietako ordezkariak biltzea da. Aipatu bilera balizko topaketa berri batzuen abiapuntua baino ez litzateke.

Orokorrean hitz eginda, antzematen du Etxebarriak gaztetxe eta gazte asanbladen baitan ematen ari den nolabaiteko garapena. «Alternatibak garatzeari ematen zaio, batez ere, garrantzi berezia. Gaur arte gaztetxe eta gazte asanbladen jardunaren erdigunean aisialdia egon den bezala, gaurtik aurrera alternatibak garatzeari ere tamaina bereko garrantzia emateko nahia antzematen da, aisialdia albo batera utzi edo gutxietsi gabe betiere. Modu horretan, bizitzaren bestelako eremuetan ere eragiteko aukera lukete gaztetxe eta gazte asanbladek», azpimarratu du.

Jakitun da, baina, gaztetxe edo gazte asanblada bakoitzak bere errealitatea bizi duela –Tolosan gaztetxerik gabe geratu dira; Iruñea eta Baionan, berriz, lortu berri dute–, nahiz eta diogen badela guztiek partekatzen duten elementu bat: kapital humanoa. «Gaztetxe edo gazte asanblada bat dagoen herri bakoitzean dago gazteria antolatu bat, konprometitutakoa eta jarrera kritikoa duena. Hori sekulako kapital humanoa da», adierazi du.



Aurrealdeko danbor handia Baionan lortu zuten. Lourdes, bere ama eta seme-alaba txikiak autoan sartzen ez zirela itzuli ziren etxera.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

infraganti KOTE LOIDI ETA LOURDES YARZA

Nerabe bat besterik ez zela hasi zuen Kote Loidik bere musika tresnen bilduma. Txirula bat eskuratu zuen eta mota horretako tresnak lortuko zituela erabaki zuen. Lourdes Yarza ezagutu zuenean afizio hori are handiagoa bilakatu zen eta biek batera munduko musika trenak bilatzeari ekin zioten. Jada 4.200 dituzte.

Ceutan egotea Afrikan egotea baldin bada, bada, bai, Afrikan egon gara», esan zigun Jose Luis Kote Loidik txantxetan danbor afrikarrez jositako Irungo biltegian. Afrikan barneratu ez badira ere, zalan-tzarik ez Jose Luisek eta Lourdes Yarza bere bikotekideak asko bidaiatu behar izan dutela mundu osoko 4.200 musika tresnen bilduma osatzeko. «Txikitan paga ematen zidatenean musika exotikoetako diskoetan gatzatzen

nuen dirua. Musika horretaz maitemindu nintzen», kontatu zigun Loidik. Dantza talde batean aritzen zen eta taldearekin Pirinioetara egindako bidaia batean txirula errumaniar bat lortu zuen tabako pakete baten truke. Bere lehen txirula, bizitza osoko afizio bati ateak zabaltzeko lehena musika tresna.

Txirula bilduma osatu zuen lehenengo, baina, Lourdes Yarza ezagutu zuenean, bien artean afizioa pasio bilakatu zuten eta aurkitzen zituzten musika tresna tradizionalak pilatzen hasi

ziren. «Azken hamar urteotan Internet oso baliagarria izan zaitugu. Hala ere, jarraitzen dugu azoketara joaten. Askotan ehunka kilometro egiten ditugu ezertarako, eta, beste batzuetan, al-diz, gauza asko aurkitzen ditugu eta ez gara autoan kabitzen», kontatu zigun emakumeak umoretsu.

Kolekzionista hauentzat gero eta zailagoa da piezak eskuratzea. «Beti esaten dugu zortea dugula aspaldian hasi ginelako. Orain prezioak altuagoak dira, eta, gainera, tresna hauetako as-

ko jada ez dira egiten», azaldu zuen Yarzak. Bilduman, adibidez, badute bolizko tronpa bat elefante haginekin egindakoa; gaur egun, debekatuta dago horrelako piezak egitea.

Tresnaz betetako biltegian badituzte danborrak, biolinak, panderoak, txirulak, argimutilak... Argimutilak? «Batzuetan saltzaileek ere ez dakite zer ari diren saltzen –aipatu zuen Lourdesek barrezka–. Bi piezok kandelabroak izango balira bezala erosi genituen eta XVIII. mendeko tronpa txinatarrak dira!».

Bilduma osatzen eman dituzten urteetan musika tresna bezainbeste pasadizo pilatu dituzte. Barrez gogoratu zuen Lourdesek behin Bordeletik bueltan gertatu zitzaiena. 1,83 metro neurtzen dituen danbor luze bat erosi zuten eta plastikoan bilduta zeramaten. Hilotz bat zirudien. Bada, egun horretan Luis Roldan atxilotu zuten eta muga guardia zibilak zeuden. Gelditu egin zituzten, eta, danbor bat zela azaltzean, muturra okertu eta pasatzen utzi zituzten. Roldan izena jarri zioten danborrari. Beste batean, jak laruz egindako danbor handi bat erosi nahi izan zuten, baina saltzaileak oso prezio altua jarri zuen; azkenean, perkusionista batek erosi zuen. Hortik urte batzuetara jatorrizko saltzaileak deitu zien esanez jabeak salgai zuela, oso prezio onean gainera. «Ez omen zuen erabiltzen eta gainetik kendu nahi zuen», azaldu zuen Kotek.

Baina beti ez dute hain zorte ona izan. «Madrilen musika denda batetik pasatu ginen eta musika tresna bat ikusi genuen, baina denda itxita zegoen. Hurrengo egunean zabaldu eta gutxira joan ginen, eta sartzerakoan gizon bat atera zen. Tresna erosi nahi genuela esatean, dendaria harritu egin zen; esan zigun hogeitaz urtean inork ez zuela horri buruz galdetu, baina hain justu gure aurretik etorri zen gizonak erosi zuela!», kontatu zuen Loidik.

Musika tresnen atzetik ibiltzen dira ahal duten moduan. Biak lanean ari dira, eta, beraz, denbora librea dutenean aritzen dira biltegian eta tresna berriak bilatzen. Behin Portugaletera Errumaniako talde bat etorri zen eta beraiekin marinba batzuk erosiko zizkietela adostu zuten. «Ia 03.00ak arte egon ginen han, eta hurrengo egunean 06.00etan altxatu beharra genuen lanera joateko!», gogoratu zuen Lourdesek. Kotek azaldu zigunez, musikariek instrumentuei agur esan nahi zieten, eta, hala, kontzertu pribatu bat eskaini zieten. «Denak elkartu eta jotzen hasi ziren. Beraiek negarrez, gu negarrez...».

Harritzekoa da bikote honek inoiz bisitatu ez dituzten kulturaren inguruan zenbat gauza da-kizkien. Musika tresna bat lortzen dutenean saiatzen dira horren inguruko informazioa lortzen; nongoa den, zein garaitakoa, zertarako erabiltzen den, zerekin egindako dagoen...

Ikasi dute musika tresnarik landu eta politenak Afrikakoak direla, Asiakoak adimentsuenak, Ozeaniakoak eta Amerikakoak sinpleenak, eta Europakoak perfektuenak. «Aipatu dugu Asiakoak adimentsuenak direla. Bada, begira, hau pika-biolina da –zioen Loidik oinarria zuen biolina eskuetan–. European biolina instrumentua finkatuz eta arkua mugituz jotzen da. Asian, berriz, hankan jartzen dute eta arkua finko mantenduz instrumentua mugitzen dute».

Livika da, agian, bilduma oso ko piezarik eskusiboenak. «Horrelako bi daude Estatu espaino-lean», esan zuen Loidik. Livika Papua Ginea Berriko Irlanda Berrria uhartean soilik jotzen den egurrezko pieza bat da. Hiru zulo ditu eta eskuetan erretxina emanez hiru nota ateratzen dira. «Musikologo frantses talde bat etorri zen ikustera eta beste batean ebanista batekin etorri ziren kopia bat egin zezan. Baina esan ziguten ez zutela soinua ateratzerik lortu», adierazi zuen Kotek.

Beste tresna bitxi ugari ere badituzte. Egurrezko txilibitu ugari dituzte kaxa batean gordeta. Horieta bat Malaysiako artxipelagoko Timor uhartekoa da. Bertan nekazariak zaldi asko dituzte eta zaldi bakoitzeko txilibitu bat erabiltzen dute, animaliek soinua ezagutzen dutelako eta deitzean etorri egiten direlako. Markodun danborren atalean –panderoak– erraketa formako bat dute. Japoniakoa da eta manifestariak erabiltzen dute zalaparta sortzeko. Egia esan, sekulako burrunba egiten du kolpatzerakoan... Vietnamgo Sheng txirula ere erakutsi zigun Kotek; organo baten soinua egiten du.

Indiako XIX. mendeko txinxirrin batzuk ere badituzte. Animalia formak dituzte eta oi-



Bilduman askotariko musika tresnak dituzte. Gorka RUBIO | Argazki PRESS

narrian erliebe bat. «Garai hartan oinutsik ibiltzen ziren eta zikinkeria garbitzera joatean erabiltzen zuten emakumeek», esan zuten. Gizonezkoei bainatzen ari zirela iragartzeko omen zen txintxirrina, haiek kuxkuxeatzera ez gerturatzeko...

Piezok txikiak badira, arrail-danborrak biltegian dituzten tresnarik handienetarikoa dira. «Afrikan eta Asian komunikatzeko erabiltzen dituzte. Elizetako kanpaiak bezala, herritarrei hileta, jaiotza eta gauza garrantzitsuen berri emateko erabiltzen dituzte», azaldu zuen Yarzak. Mota horretako danbor txiki eta landuagoak ere badituzte. Horiak xamanek erabiltzen dituzte. Herritarrek zergatik dauden gaixo galdetzen dute eta xamanak danborra jotzen du honek duen figurak duen sudur luzearekin sentsazioak Jain-

koari bidaltzeko. Ondoren, Jainkoak arazoari konponbidea ematen dio eta figurak belarri zabalekin entzun du Jainkoaren hitza xamanari jakinarazteko.

Materialei dagokionez, egurra da kultura guztietan gehien erabiltzen dena, baina arretaz begiratzu aniztasun handia dago, kultura bakoitza naturak emandakoaz baliatzen delako. Polinesiar, esaterako, karakolak, maskorrak edota kokoak erabiltzen dituzte. Azal mota desberdinak ere erabiltzen dira danborrak egiterako garaian: katuarena, txakurrarena, elefantearena, antilopearena, bufaloarena, narrastiena, gizakiena... bai, gizakiena ere bai.

Himalaia mendien inguruan egindako hareazko erloju formako danborrak dituzte. Bi garrezurrek osatzen dute egitura, bata emakumearena eta bestea

Protestanteak sami herriaren lurretara iristean danborrak suntsitu egin zituzten. Daniar batek batzuk eramane zituen museo batera, baina sute batek guztiak erre zituen

Indonesiako Alor uhartean emakumeen dotea brontzez egindako danbor handiekin ordaintzen zuten, material hori oso garestia zelako

tak antolatzeko. Azkena Zumarragako Zelai Aristi aretoan izan da. «Hemen dena pilatuta dago, baina, han, areto zuri horretan, argi horrekin, guk ere ez genuen sinesten musika tresna hauek gureak zirenik!», onartu zuten. Erakusketak muntatzen dituztenean zertxobait kobratzen dute, beraientzat tresna berriak erostea eta gordetzea kostu handia delako. Hala ere, uste dute ez dela bildumak duen balioa nahikoa baloratzen eta pena ematen die Euskal Herritik kanpo arrakasta gehiago izatea hemen bertan baino.

Orain artean 115 erakusketa prestatu dituzte 1992tik geroztik, eta ez dute bakar bat ere errepikatu. Donostiako Musika Hamabostaldian izan ziren 2002an, Kursaal jauregian, eta Gipuzkoako hiriburua musikari hain loturik izanik pentsatu zuten 2016ko Europako Kultura Hiriburutzako egitarauan parte har zezaketela. 2012ko maiatzean bidali zuten parte hartzeko eskaera, baina hiru urtez ez zuten inolako erantzunik jaso. 2015ean, azkenik, esan zieten berandu zela proposamenak egiteko. Pena eman zion bikoteari. «Europako 700 musika tresna tradizional baino gehiago ditugu. Beste hiriburua Wroclaw izanik Poloniako hainbat instrumentu ere baditugu. Gauza txukun bat egin genezakeen», esan zigun Lourdesek penatuta.

Kulturan murrizketa ugari egin direnez uste dute zaila dela euren piezak gordetzeko, eta, bide batez, erakusteko, areto bat lortzea, baina itxaropena badute. «Eskerrak ilusioa dugun, bestela ez luke pena mereziko honen guztiarekin jarraitzea!». Bitartean euren webgunea (www.musicaparaver.org) txukuntzen emango dute denbora, euskarazko bertsioa hobetzen. •

Nagore Belastegi Martin

gizonarena, biak ala biak heriotza bortitza izandakoak. Gizaki azala jartzen zieten ondoren garrezurrei. «Lagun bati erakutsi nion, eta, gizakiaren azalez eginda zegoela esan nioenean, askatu egin zuen; lurrera iristear zegoela harrapatu nuen!», esan zuen Kotek kezka aurpegia jarritz. Femurrez egindako txirulak ere badituzte, baita haurren gorpuzkiekin egindakoak ere, baina azken horiek ez dituzte gustuko pena ematen dielako.

Zaila da biltegian dituzten milaka musika tresnak aipatzea, hainbeste denboraren ostean museo askok baina bilduma politagoa osatzea lortu dutelako. Jabeak beraiek diren eta afizio honekin jarraitzeko sasoia galtzean seme-alabei utziko dizkieten arren, pozik elkarbanatzen dituzte euren jakintzak guztiekin. Beti daude prest erakuske-



Rosa Arruabarrena Santos

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Bideo bidez nahi duzuna ikasi!

Amonaren bexamela erre-zeta, kontaktuak Androidetik iPhonea eramaten, integralen garapenean trebatzen, lehenengo urratsak balkoietako barazkigintzan, «responsive» webgune erakargarriak sortzen (maila aurreratu), mendiko orientazioan eta GPS erabilpenean hastapen ikastaroa... orotariko bideoak topa ditzakegu egun Interneten. Horiatariko asko gure ezagutza beharrak asetzeko iturri amaigabe izanik, zergatik ez diegu etekin maximoa ateratzen?

Azken hamarkada honetan Internet sarearen hedapena deigarria izan da. Batetik, metatutako informazioaren bolumenak eta formatuek aldaketa handia jasan dituzte: hasiera bateko hipertextu orri soilen sareetatik ahalmen handiko argazkiak, musika, bideoak edota zerbitzuak eskaintzen dituzten biltegi espezializatuak konektatzen dituzten amarauna osatzeraino doa eboluzioa. Hala eta guztiz ere, sareetara konektaturiko gailu digitalen zabaltze esponentziala izan da transformazio honetako beste giltzarria. Kable nahiz wifi bidezko estalduren hobekuntzak, softwarearen garapenarekin batera, materialen hodeiratze prozesuak nabarmen erraztu dituzte. Esate baterako, 2014an Youtubek aditzera eman zuen euren webgunean minuturo 300 ordu bideo berriri ematen zitzaiela ostatu, aurreko urteko hirukoitza; eta gaur egun 1.000 milioi erabiltzaile baino gehiago dituela. Kontuak atera!

Bideoen erabilpenak abantaila ugari ditu prestakuntza arautuan nahiz arautu gabekoan. Nagusiena, egunero 24 orduz eskuragai daudela; gure ezagutza beharrak asetzeko, egoera kritikoetan lagun gaitzakeen informazioa errazteko edota gure aisialdia betetzeko. Nahi izanez gero, hurbileko adibide zehatz bat hizkuntzen ikasketa da. Arlo honetan ahozko ulermenak, ahoskera eta komunikazio-gaitasunak jorratzeko baliagarriak dira bideoak. Gainera, geroztik gerora, bideo gehiagok azpigituluak dituzte, abiadura desberdinetan erre-



produzi litezke, eten edota bideo zatiak nahi adina aldiz erreproduzitu, horiek izanik bideotutorialetan eta prozesuetan eskertzekoak diren ezaugarriak. Horrela, Interneten bistaratze tipikoak dira honakoak: “Nola sinkronizatu agendak gailu digitalen artean”, “Nola prestatu autoa bidaia luze baterako”, “Nola prestatu eskura ditudan perretxikoak”... Bideo horiek pilula didaktikoak kontsidera litezke, minutu batzuk besterik ez dirauten arren.

Haatik, doako ezagutza iturri horiek agudo identifikatu dituzte zibernautek. Eta sortzaile batzuek, igoeren ikusketa kopuru gogoangarriak animatuta, euren arloan beste bideo pilula gehiago ekoitzi dituzte bai eta webguneak txukundu ere, bideo kanaleetan antolatuz entregak eta arreta lerroa edota postontzia integratuz. Hori horrela, batzuk benetako lerroko akademia bihurtu dira. Horren adibide dira, besteak beste, Julioprofe, Quimitube, Unicoos, ThinkWell. Eta, ezin aipatu gabe utzi TED talks, zientzia eta ideien zabalkunderako gunea, nahiz beste liga batean jolasten duen honek.

Bistan denez, hezkuntza arloko negozio-eredu berriak bideo digitalen ahalmen handiaz jabetu dira, eta baliabide pedagogiko hori beste batzuekin uztartu dute jada hain berriak ez diren ikaskuntza metodologiatan, hala nola, lerroko ikasketetan (*elearning*, *mooc*), lerroko eta presentziazko jarduerak konbinatzen dituzten ikasketetan (*blen-*

ding learning) eta bideo jokoetan oinarritutako ikasketetan (*video game-based learning*).

Eskaintza oso zabala da, oinarritzko kontzeptuak jorratzen dituzten ikastaroetatik profesionaletaraino. Gehienbat praktikotasunean sakontzen dute, jardueren zuzenketak ere egiten dira eta tutoretza-laguntza lerroa integratua dute. Hainbatek betekizunak gainditu izanaren agiri homologatuak ematen dituzte, batez ere unibertsitate, antolatzaile edota babesle publikoek sustatutakoak badira. Azken kasu horretan, ikastaroetako programen, ikasmaterialen eta ongi egitearen bermatzaileak ere badira entitate horiek. Hortaz, ezagutza berrien edota gaitasunak lortzeko bidea arintzen diote ikasleari, sareko amaraunean nora ezean ibil ez dadin, hori bai, gehienetan, diru truk. Hemen ere erabiltzaileentzat aukerak amaigabeak dira, adibidez: EHUko, UNEDeko edo beste unibertsitateetako *on line* ikastaroak, MiriadaX, Coursera, EdX, Udacity, ...

Gustu, behar eta poltsikoetarako aukera hauek guztiak klik batera edukiz, nolatan alboratu? Ziur behar duzuen argipen hori jada norbaitek igoa duela hodeira, etekina atera iezazioe orduan! Erabili hala, onurak barneratuta, ziur aurrerago bideoz osatutako autoikaskuntzako ikastaro batean ere parte hartuko duzuela. Eta nork daki, zuetariko norbait akaso bideoak egiten ere hasiko da! •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



LUIS ZIARRUSTA

DUELA BERROGEI URTEKO MARTXOAREN 3A, GASTEIZEN

1976ko martxoaren 3an bost langile hil ziren eta ehundik gora zauritu Poliziaren tiroen ondorioz, Gasteizko San Frantzisko eliza jendez hustu zutenean. Greba orokorreko eguna zen eta elizan asanblada bat zegoen deituta arratsaldeko bostetan. Luis Ziarrusta argazkilari gasteiztarrek 21 urte zituen eta "El Correo" egunkarian lan egiten zuen. Arratsaldeko laurak ziren eta Poliziak erabat hartuak zituen elizaren inguruak. Ziarrusta inguruko etxebizitza batean zegoen eta leihotik hartu zuen nola kentzen zuen Poliziak barrikada bat. Egunean zehar egindako argazkiak ahalik eta azkarren errebelatu eta egunkariaren egoitzara helarazteko, berak eramane zituen Bilboraino. Gasteiz barrikadek hartuta zegoen eta bi ordu kostatu zitzaion ateratzea. Bereak izan ziren argia ikusi zuten lehen argazkiak, hurrengo egunean "El Correo"-n argitaratu baitziren. Martxoaren 5ean, berriz, nazioarteko komunikabide garrantzitsuenetan argitaratu zituzten bere argazkiak, "El Correo"-k Europa Press agentziari saldu baitzizkion egilearen baimenik gabe.



URTEKARIA 2015

Burujabetzarako bidea

Urteko gertakizun garrantzitsuenak, liburuki atsegin batean: irudiak, dokumentuak, grafikoak, kronologiak, estatistikak, kronikak... 216 orri

Eta aurten, gainera, **sinadura entzutetsuen analisiak** gori-gori dauden gaien inguruan:

Jabier Salutregi, Urko Aiartza, Iñaki Altuna, David Fernández (CUP),
Jordi Cuixart (Òmnium Cultural), Jordi Sànchez (ANC), Raúl Zelik...

Eta **Gaindegia**-ren kolaborazio berezia:

Euskal Herriaren erradiografia
adierazle sozioekonomikoen bitartez,
grafikoekin eta beraien testuinguruekin osatua

27an eta 28an
larunbata eta igandea

Soilik
11,95€

Harpidedunentzako
eskaintza berezia
7,95€

denda.naiz.eus orrian

*Ezinbestekoa
zure apalategian*

